

**ZUMAIAKO ETA GETARIAKO HIZKEREN
*BITXIKERIYAK, BITXIKERIXAK EDOTA
BITXIKERIDXAK***

EGILEA: Leire Mendizabal Eizagirre

Euskal Ikasketak 2022-2023

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Letren Fakultatea

TUTOREA: Oroitz Jauregi Nazabal

Vitoria-Gasteiz

2023ko ekaina

LABURPENA

Zumaia eta Getaria mugakide diren herriak dira eta hizkera aldetik ezberdintasunak topa badaitezke ere, herri arrantzale hauek zenbait ezaugarritan bat datoz. Azterlan hau, hain zuzen, Urola Kostako bi herri hauetako hizkerek partekatzen dituzten bokalarteko kontsonante epentetikoak aztertzeke saioa izango da, herri bata eta besteak ezaugarri honen aurrean duten jarrera eta dituzten joerak ikertuz.

Leherkari sabaikari ahostundun [ɣ], igurzari sabaiaurreko ahoskabedun [ʃ] eta igurzari sabaiaurreko ahostundun [ʒ] bokalarteko kontsonante epentetikoak izango dira aztergai. Igurzari sabaiaurreko ahostunari [ʒ] arreta berezia eskainiko zaio, inguru hauetan ohiko hotsa ez izateaz gain, denboraren poderioz belaunaldi berriengana transmititzera nekez iritsi den hotsa ere badelako. Lan honen egilea zumaiaarra izanik, bertako herritarren zein alboko herriko getariarrendandik hauteman daitekeen [ʒ] hotsaren erabilera puntual eta deigarria izan da ikerketa honi heldu izanaren arrazoi nagusia. Izan ere, Urola Kostako gainontzeko herrietan, eta are gehiago, Gipuzkoan bere osotasunean ere lekukotu ez den hotsa da igurzari sabaiaurreko ahostunarena [ʒ], erdialdeko euskalkian baino mendebaldekoan ezaugarritzen dena. Gainera, eremu honetako hiztunek bokalarteko kontsonante epentetiko ezberdinekiko darabiltzaten joeren inguruko informazio askorik ez dagoela kontuan hartuta, ikerketa bati ekiteko gai egoki eta interesgarritzat jo da.

Hots epentetiko ezberdin hauen erabileran aldakortasun handia dago herri batetik bestera, bai auzo batetik bestera, eta baita hiztun batetik bestera ere; horregatik, herritarren artean multzokatze ezberdinak egin dira: alde batetik, auzotarrak, eta bestetik, kaletar eta arrantzaleak (Zumaiaaren kasuan) edota herriguneko arrantzale eta herriguneko kale-baserritarren artekoa (Getariaren kasuan). Herri banatako hainbat lekukoren datuak bildu eta emaitzak jaso ostean, hiztunek darabilten kontsonante epentetiko ezberdinen erabilera zehaztu ahal izan da, bai eta igurzari sabaiaurreko ahostunaren [ʒ] nondik norakoak eta jatorriak aztertu, [ʒ] hotsaren eta itsaso eta arrantza-munduaren arteko loturak ezarriz.

Erabilitako datuak ahotsak.eus webguneko lekukotasunetatik jasoak izan dira eta hiztunen jaioturtea ikusiz (1920-1930 urteen bueltan dabiltza gehienak), landuko diren datuak hizkeren egoera zaharrago bat eskainiko dute, honen gisako azterlanengatik ez balitz galduta legokeen altxor bat.

Hitz-gakoak: Zumaia, Getaria, kontsonante epentetikoa, ahoskera.

AURKIBIDEA

1	SARRERA ETA HELBURUEN AURKEZPENA	1
2	ORAIN ARTEKO IKERKETAK	5
3	DATUEN ANALISIA	12
3.1	METODOLOGIA.....	12
3.1.1	DATU BILKETA.....	12
3.1.2	HIZTUNAK	16
3.2	DATUAK HERRIKA	18
3.2.1	ZUMAIKO DATUAK	18
3.2.2	GETARIAKO DATUAK.....	23
3.3	EMAITZAK	27
4	ONDORIOAK	31
5	BIBLIOGRAFIA	33
5.1	WEBGRAFIA	33
6	ERANSKINA	34
6.1	ZUMAIA.....	34
6.1.1	OIKIA	34
6.1.2	LARRONDO	37
6.1.3	ARTADI.....	46
6.1.4	ELORRIAGA	48
6.1.5	KALETARRAK	52
6.1.6	ARRANTZALEAK	56
6.2	GETARIA.....	61
6.2.1	ASKIZU	61
6.2.2	EITZAGA	64
6.2.3	SAN PRUDENTZIO	68
6.2.4	HERRIGUNEA	70
6.2.5	KALE-BASERRI	73

1 SARRERA ETA HELBURUEN AURKEZPENA

Aski ezaguna eta jakina da hizkuntzak denboraren poderioz aldatu egiten direlako ideia, hizkuntzak beti bat eta bera direla eta izan direlako ustearen kontra. Urte askoz atzera egin gabe antzeman daiteke hori belaunaldi desberdinen artean; izan ere, hizkeren arteko aldeak nabariak dira alor lexikoari, gramatikalari zein fonetiko edota morfologikoari dagokionean.

Gradu Amaierako Lan honen helburua Urola Kostako Zumaia eta Getaria herrietako hizkeren berezitasuna argitara ematea izango da. Bereziki, herri hauetan erabiltzen diren bokal arteko hots epentetikoetan jarriko da arreta; hala nola, igurzkari sabaikari ahostun [j] edo leherkari sabaikari ahostunean [j]¹ (<berri[j]a>²), igurzkari sabaiaurreko ahoskabeen [j] (<i[j]a>³) eta igurzkari sabaiaurreko ahostunean [ʒ] (<lotei[ʒ]a>). Beraz, hots hauek identifikatu eta noiz, zergatik edota zein testuingurutan gertatzen diren aztertzeko saioa izango da honakoa, beti ere autorearen oharmenaren arabera jardunez, zehaztasun akustikoetan sartu gabe.

Aipatu berri denez, lan honen funtsa zenbait bokalen artean txerta daitezkeen eta txertatzen diren kontsonante epentetiko ezberdinak topatzea izango da. Testuinguru ezberdinetan sor daitezke; hala nola, <i>⁴ aitzineko bokal itxiari (eta kasuren batean <e>) honako bokal hauek jarraitzen diotenean: <a> erdiko bokal irekiak (adibidez, <mendi[ʒ]a>, <behe[j]an>); <e> aitzineko bokal erdi-itxiak (adibidez, <daki[ʒ]e>); eta azkenik, <o> atzeko bokal erdi-itxiak (adibidez, <di[ʒ]ok>), edota <o>-ren disimilazioaren ondorioz sortutako <u> atzeko bokal itxiak (adibidez, <diputazi[j]uak>).

Euskal Herriko hizkera desberdinei erreparatzen bazaie, zer nolako barietate eta hizkera aniztasun dagoen ikus daiteke, eta aipatu berri diren testuinguru jakin horietan ager

¹Zenbait hitzunez gauzatutako hotsak, igurzkari [j] zein leherkari [j], biak izatea posible da. Ziurtasunez bi hotsetatik zein gauzatzen duen jakiteko Praat programaz baliatu beharko litzateke, baina zeregin hori hurrengo azterketa baterako utzi da. Oraingo azterketa honetan leherkarizat hartzea erabaki da.

²Lan osoan zehar < > eta [] zeinuak erabiliko dira; lehena transkripzio ortografikoa adierazi nahi den kasuetan, eta bigarrena, berriz, transkripzio fonetikoa adierazteko.

³Fonetikoki soilik interesgarri den hotsa transkribatuko da. Adibidea osoki era ortografikoan emango da.

⁴Diptongodun hitzen kasuan, adibidez: <geheidxo> eta <Zumaia>; diptongoaren elementu ez silabagileak (kasu honetan, <gehe[i]dxo>) edota hurbilkariak (kasu honetan, <Zuma[j]a>) aitzineko bokal itxiaren nolakotasunak dituzten elementuak dituztenean, ez da [j] bokala eta hauen arteko bereizketarik egingo. 3.2. puntuan ikusiko denez, kasu batzuetan silabagile ez den elementu hau galtzera ere iritsiko da: <gehe[i]dxo> > <gehedxo>. Halere, azken hauen arteko bereizketa nahiko bereizketa konplikatua da eta hurrengo lan baterako utzi da banaketa zehatzago bat egitearena.

daitezkeen hots epentetikoei dagokienean ere, gauza ez da atzean geratzen. Izan ere, badaude zenbait eremu kontsonante epentetikorik tartekatzen ez dutenak, baina beste zenbaitetan aldiz, aise topatu daitezke kontsonante epentetiko ezberdinak; hala nola, lehen aipatutako leherkari sabaikari ahostuna [ɟ], igurzkari sabaiaurreko ahoskabea [ʃ] eta igurzkari sabaiaurreko ahostuna [ʒ] Gipuzkoako iparraldean, Deba ibar osoan, Bizkaiko eremu zabalean, Lapurdiko itsasbazterrean eta Nafarroako alderdi bitan lekukotzen dira (Zuazo, 2008). Gainera, gerta liteke, eta gertatzen da, eremu jakin bateko hiztunek kontsonante epentetiko ezberdinen erabilera txandakatzea, bakar baten aldeko joera erabatekoa adierazi beharrean.

Aldakortasun honen haritik, ikerketa hau Zumaia eta Getaria herrietara bideratu izanaren zergatiari helduko zaio ondoren. Badira herri mordoxka bat hizpide diren kontsonante epentetikook tartekatzen dituztenak, batez ere kostaldeko herriak: hala nola, Mungialdeko, Busturialdeko eta Lea-Artibai eskualdeetakoak, zein Gipuzkoa iparraldeko eta Lapurdiko kostaldeko herriak⁵. Hori horrela, Zumaia eta Getaria herrien aldeko hautuaren atzean ezkututzen diren bi arrazoi sendoak azalduko dira jarraian.

Alde batetik, han hemenka aurki daitezkeen aipamen zenbaitez landa, gai honen inguruko azterketa sendorik ez da egin, eta beraz, ikerlan honen autorea bera zumaiarra izanik, bere herriko eta albokoaren hizkeren ezaugarriei buruzko ikerketa bat egiteak gauzak dezente erraztu liezazkioke. Azterketa burutu behar den ingurukoa izatean, hizkerok etxekoago dira eta gehiago menperatzeaz gain, xehetasun zein berezitasunen informazio iturriak bilatzea ere errazagoa da.

Orain aipatutako lehen puntua bakarrik kontuan hartuko balitz, ikerketa honetarako Deba edota Zarautz bezalako herriak zergatik aukeratu ez diren galdetzea ere zilegi litzateke. Bestetik, beraz, garrantzia eman zaiona, Urola Kostako hautatutako bi herri hauetan bokal arteko hiru hots epentetikoak (leherkari sabaikari ahostuna [ɟ], igurzkari sabaiaurreko ahoskabea [ʃ] eta igurzkari sabaiaurreko ahostuna [ʒ]) topatzeko aukera dagoela izan da. Hualde eta Gaminderi (1998) jarraituz, Deban, igurzkari sabaiaurreko ahoskabea [ʃ] eta Zarautzen leherkari sabaikari ahostuna [ɟ] erabat nagusitzen direla kontuan izanik, ez legoke Zumaia eta Getarian eduki litekeen aldakortasun eta aniztasuna aztertzeke aukerarik.

⁵Ondorengo atalean xehetasun gehiagorekin deskribatuko da kontsonante epentetikoaren banaketa geografikoa, eta kostaldeaz haratago, barnealdeko zenbait eremuek ere tartekatzen dituztela ikusiko da.

Azterketa hau aurrera eraman ahal izateko ahotsak.eus webgunean bildutako lekukotasunak izan dira oinarri sendo; izan ere, datu iturri aberatsak biltzen ditu aipaturiko webguneak eta, jende helduen ahozko lekukotzaz osaturik egonik, oso interesgarri dira ikerketa lan honetarako. Webgune horretan hainbat proiektu⁶ desberdinetarako grabaturiko lekukotasunak daude, adin (batez ere adin nagusikoak) eta genero ezberdinetako herritarren lekukotasunak, hain zuzen.

Aipatu behar da, mahaigaineraturiko hiru hots epentetiko desberdin horien artean, igurzkari sabaiaurreko ahostuna [3] dela deigarri edota azpimarragarriena. Izan ere, Bizkaiko eremu zabalean sarri entzun genezakeen arren (Zuazo, 2008), Gipuzkoako kostaldeko Zumaia eta Getarian hots honen erabilera ez da sobera ezaguna eta ez da ikerketa nabarmenik egin. Beraz, hots honi buruzko nolabaiteko aztarnak bildu eta orain arte izan duen erabilera lekukotzeko saio laburra da hau. Gainera, autorea herriko hiztuna den aldetik, bere uste zein beste herritar askoren usteetan oinarrituz, igurzkari sabaiaurreko ahostunaren [3] erabilera galbidean dela eta belaunaldi berriek nekez darabiltela baieztatu dezake, eta beraz, noizbait izan delakoaren aztarnak gordetzea ere garrantzitsua litzateke.

Honen harira, kontsonante epentetikoen nolakotasun aldakorra herri ezberdin eta herriko eremu ezberdinetan nola gauzatzen den ikusiko da; izan ere, lehorrean (batez ere auzoguneak, baina baita herri bertan itsasoarekin loturarik ez duten eremuak) eta itsas inguruan edo itsasoarekin kontaktu zuzena duten eremuetan ezberdin gauzatzen direlako susmoa dago. Hipotesi honekin jarraituz, bi mundu hauen arteko ezberdintasun hori xehetasun gehiagorekin emateko, igurzkari sabaiaurreko ahostunaren [3] eta itsas mundu eta arrantzale-kulturaren arteko harremanaren aldeko apustua egingo da. Honekin esan nahi dena, Getaria edo Zumaia [3] hots epentetikoa gauzatzen duten hiztunak itsasoarekiko lotura estua edukitzea ez ezik, arrantzale ofizio, bizimodu edota nolabaiteko arrantzale-kulturan murgilduriko inguruan bizi, hezi eta mugitu direla edo izan direla da. Horrez gain, hurrengo atalean hainbat lanetan hala lekukoturik ageri dela ikusiko den arren, hasiera batean ez Zumaian eta ez Getarian ez da igurzkari sabaiaurreko ahoskabearen aztarrenik topatzerik espero, ez behintzat itsas-munduarekin topatzea espero den aldaera ahostunaren [3] ordezeko gisa.

⁶Orain arte bildutako ikerketei eskainiriko atalean, jarraian datorrena, helduko zaio proiektuok sakonago aztertzeari.

Halere, hau guztia sakonago aztertuko da ondorengo atalean, Euskal Herriko eremu ezberdinek darabiltzaten kontsonante epentetiko jakinen joerak, horien bilakaera eta xehetasunen inguruan diharduten ikerketen inguruan jardungo baitu 2. atalak. Hala nola, atal teoriko hau lantzerakoan Azkueren (1919), Mitxelenaren (1961), Hualde eta Gaminderen (1998), Hualderen (2003) eta Zuazoren (2008) lanak izan dira abiapuntu. Lan horien artean gehiengoa dira (Mitxelena litzateke salbuespen bakar) *-i + -a* testuinguruan, hau da <i> bokalari absolutibo singularreko determinatzailea eransten den testuinguruan, soilik aztertu dutenak kontsonante epentetikoaren sorrera eta jarrera, hala beren azterketa egoera morfologikoa aztertzea mugatuz. Ikerketa lan hau ordea, haratago doa, ingurune morfologikora mugatu gabe, <i> bokalaren ondoan beste bokalen bat dagoeneko kasuetan egokiera fonikoari ere erreparatu baitzaio. Halere, ezin daiteke hain testuinguru orokorra eskaini, muga edo zehaztapen gehiago ezarri behar dira; adibidez, <i> bokala <e> bokalak jasandako bilakabidearen emaitza den kasuetan ez delako halako fenomenorik gertatzen (adibidez, <bitartian>, <eunian>).

Lan teoriko horiez gain ordea, azpimarratu beharrekoa da Getariako eta Zumaiako hizkeren inguruan egindako ikerketa lanak eta herritarrek berek utzitako lekukotasunak ere ezinbesteko izan direla hizkuntzaren inguruko azterketa hau burutzerako orduan.

Informazio iturri batetik zein bestetik edan ostean, jasotako informazioa behatu, datuetatik ateratako emaitzei erreparatu eta hasiera batean botatako hipotesia, datu bilketaren ostean jasotako emaitzekin bat ote datorren edo ez ikusiko da. Horrela, ikerlan hau amaitzeko, honetatik guztitik ondorio batzuk atera ahal izango dira.

2 ORAIN ARTEKO IKERKETAK

Atal honetan alderdi teorikoago bati helduko zaio, lan honetarako informazio iturri izan den lanik zaharrenarekin hasiz; Azkuerenarekin (1919), hain zuzen. Azkuek bere aldetik, bokalez amaituriko hitz bat *-a* artikularekin elkartzean gertatzen diren fenomeno fonetikoaren emaitzen egoerari “babel vasca” deritzo. Honen barruan, *-i + -a* elkarketari dagokionean, honako hau dio: “-I + -A engendra ocho de estos fenómenos: *ogie* (AN, B, G), *ogii* (B-ple), *ogidsa* (B), *ogidxe* (B), *ogixa* (B, G), *ogixe* (B), *ogiya* (G), *ogiye* (G) en vez de OGIA” (Azkue, 1919).

Bigarren informazio iturria Mitxelenaren *Fonética Histórica Vasca* litzateke. Mitxelenak ([1961], 1985) bizkaieraz mintzo den Euskal Herriko zati gehienean eta honen mugakide diren gipuzkeraz hitz egiten den zenbait herritan, bokalarteko <j>, [ʒ] ahoskatzen dela lekukotzen du, nahiko argi artikulaturiko <i> baten ondoan joan ohi omen dena. Gertaera honi, hau da, <i> eta ondorengo bokalaren artean ahoskatzen den hotsari, “sonido de transición” deitu dio. Horrez gain, Mitxelenak hotsaren garapena nola izan daitekeen ere erakusten du; adibidez, Gipuzkoako eta Markiñako bizkaieran (*d*)ž > š⁷ (hau da, <(d)[ʒ]> > [ʃ]) bilakaera eman dela adierazten du: *laixa* ‘laya’, Oñate *puxeta* ‘colada’ (Land. *pyata*), *barrixa* ‘lo nuevo’, etc. Prozesu hau [x] bihurtzeraino ere luzatu omen da:

Vizc. Txorierrri *anaje* ‘hermano’ con *j* española (pronunciación ya señalada por Larramendi), vizc. Mondragón *pujeta* ‘colada’, como Albia, Deusto *eleja* ‘iglesia’, de *elexa* con antigua prepalatal sorda. Lo mismo ocurre en a.-nav. Guip. *oju* ‘grito’ de *oi(h)u*, guip. Deva *talaja* ‘atalaya’, donde el resultado ha sido el mismo que en guip. *perrejil* ‘perejil’ (a.-nav. etc. *perrexil*) o *majadera* ‘pesebre’ (Leic. escribe *mangedera*) (Mitxelena, [1961], 1985)⁸.

Ostera, Hualde eta Gaminderen (1998) lanera igaroz, absolutibo singularrean bokalekin gertatzen dena aztertu eta Euskal Herri osoan zehar herri ezberdinetan lekukotutako joerak ikertu dira. Beraien azterketa, batez ere, <i>-z amaituriko erroari *-a* determinatzailea eranstean ager daitekeen kontsonante epentetikoarekin gertatzen dena azaltzera mugatu dute.

⁷Erabili diren zenbait informazio iturrik idazkera fonetiko hau badarabilte ere, ikerketa-lan hau NAF alfabetoari jarraiki burutu da.

⁸Beste lanetan topatu gabeko testuinguru berri bat ere mahaigaineratzen du Mitxelenak, nahiz eta ez duen harreman zuzenik lan honek aztergai duen gertakariarekin. Hain zuzen, <i> ondorengo <d> eta <g>-ren palatalizazioa, Nafarroa Garaiko eta Gipuzkoako lurraldetan lekukotua: *fiyatu* ‘(con)fiado’, *giyatu* ‘guiado’ <*fidatu*, *gidatu*; *iyo* ‘subir’ ‘moler’, *iyortzi* ‘frotado, restregado’ <*igo*, *igortzi*, etc.

Zumaiako datuei dagokienean hau ikusi dute: $-i + -a > -i\text{ša}$ (<-i[ʃ]a>); adibidez, <mendi[ʃ]a>. Aipatu berri den epentesi horri buruz honako hau diote: “With stems ending in a high front vowel a homorganic transitional glide developed between the stem-final vowel and the initial vowel of a suffix in many Bizkaian, Gipuzkoan and High Navarrese varieties” (Hualde eta Gaminde, 1998, 46-47. or.). $-i + -a$ testuinguru honetan aurki daitezkeen kontsonante epentetikoekin sailkapen moduko bat ere egin dute⁹:

- $ia > iya$ <i[ʃ]a> ~ <i[ʃ]a>: <mendi> / <mendi[ʃ]a> (many Gipuzkoan varieties)
- $ia > iya > i\text{ža}$ <i[ʒ]a>: <mendi> / <mendi[ʒ]a> (many Bizkaian varieties)
- $ia > iya > i\text{ža} > i\text{ša}$ <i[ʃ]a>: <mendi> / <mendi[ʃ]a> (Deba valley)

Beraz, <-i> amaieradun hitzak absolutibo singularrarekin elkartzean, epentesia gauzatzen dela ikus daiteke, beste zenbait Gipuzkoako hizkeretan gertatzen den bezala.

1. Taula: Epentesia Zumaian (Hualde eta Gaminde 1998; nik moldatua)

Zumaia (northcentral Gipuzkoa, coast)		
#_V	#_V + abs. sg.	#_V + abs. pl.
<-i>: <herri>	<-i[ʃ]a>: <herri[ʃ]a>	<-i[ʃ]ak>: <herri[ʃ]ak>

Zumaiako hizkerari eskainiriko ataltxo honi erreparatuz, ikus daiteke <-i> amaieradun hitzak absolutibo singularreko $-a$ edota pluraleko $-ak$ atzizkiekin elkartuz gero, [ʃ] kontsonante epentetikoa tartekatzen dutela bi bokalon artean; hori hala, Gipuzkoako aldaeraren barruan baino Deba ibarreko aldaerarenean kokatzen dute.

Getariako hizkerari dagokionean, euren lanean herri honi atal oso bat eskaintzen ez badiote ere, Zumaiako hizkeratik abiatuz, honen eta Getariakoaren artean antzeman daitezkeen ezberdintasun bat nabarmentzen dute. Izan ere, azken honek kontsonante igurzkari sabaiaurreko ahoskabea ahostuntzeko azken pausu bat ematen du, “where the epenthetic segment with i-final stems has not been devoiced: *erriža, errižak*” (Hualde eta Gaminde, 1998, 58. or.). Hori hala, Getariako hizkera Zumaiakoarekin batera Deba ibarreko aldaeren barruan kokatu beharrean, Bizkaiko aldaeren barruan kokatzen dute.

5 urteren ostean Ortiz de Urbinarekin batera argitaraturiko lan berri batean, Hualde (2003), lehendik Mitxelenarekin (1961) hizpide izandako bokalarteko <j>-z mintzo da

⁹Datuak aurkezteko modua egokitu egin da ulermenerako.

fonologiari soilik eskainiriko atalean. Hori horrela, <j> honen bilakaeraren inguruan esandakoak bildu dira hemen, ikerketa honetarako interesgarriak direlakoan:

To begin with, in Gipuzkoan and neighboring High Navarrese and Bizkaian areas, an original word-initial glide *j- has had the same development as in Spanish: [j] > [ʒ] > [ʃ] > [x]. The process was completed in all of Gipuzkoa, where, for instance, original [jan] ‘eat’ (< *e-an) is now universally pronounced [xan]; but in other areas the development stopped somewhere along the way. In some northern Bizkaian areas (e.g. Lekeitio, Bermeo) we find a prepalatal [ʒ] (which also has affricate realizations after pause or a noncontinuant consonant) and in some Navarrese areas (Roncal, Salazar) there was devoicing of this sound but no velarization and we find [ʃ] (this sound is usually written with x, like other instances of the same sound: *xan* [ʃan] ‘to eat’). [...] (Hualde eta Ortiz de Urbina 2003, 27-28 or.).

Amaitzeko, azken urteotako lan berriena den Zuazorena (2008) izan da azken informazio iturri. Zuazoren arabera, Gipuzkoako euskarak ere azkenotan berdintzera egin arren, Goierrin eta Urolaldean ez da guztiz desagertu mendebaldeko euskararen eragina eta, ikerlan honetan arreta berezia ipini zaion hots epentetikoa, hau da, igurzkari sabaiurreko ahostuna [ʒ], litzateke horren adibide. Izan ere, bi eskualdeok osatzen duten *sartaldeko azpieuskalkiari* dagokio mendebaldeko zenbait ezaugarri izatea, eta baita erdialdeko zenbait berrikuntza ez partekatzea ere.

Aztergai diren hots epentetikoei dagokienean, Zuazok (2008) Euskal Herriko erdiguneko eremu murrizteko ezaugarri gisa ditu. <i> bokala <a>, <e> eta <o> bokalekin elkartzean, <y> [j] / <dx> [ʒ] / <x> [ʃ] bezalako hotsak lekukotzen direla adierazten du: <mendi> + -a > <mendi[j]a> / <mendi[ʒ]e> / <mendi[ʃ]a>. Ikerlan honek alderdi dialektologikoan arreta jarria ez badu ere, Zuazok (2008) eskainiriko dialektologiako datuak garrantzitsu suerta daitezke, batez ere, kontsonante epentetikoaren arabera eremuak sailka daitezkeelako eta sailkatzen direlako.

Hizkuntzaren ezaugarri bakoitzari norbere euskalkia atxiki nahia sarri izaten bada ere, ez da hain gauza sinplea. Euskalki batean baino gehiagotan gauzatzen diren ezaugarriak asko dira, euskalkien ohiko mugak gainditu eta eremu zabalagoetan betetzen direnak (Zuazo, 2008). Egile honek berak, alde batetik, [ʒ] Mungialdean, Busturialdean, Lea eskualdean, Durangaldean, Otxandio-Oleta-Ubide-Legutio alderdian eta Nerbioi ibarreko iparraldean lekukotzen du; bestetik, berriz, [ʃ] Deba ibar eta Artibai eskualdean (<mendi[ʃ]a> / <mendi[ʃ]e>). [ʃ] hots epentetiko horren antzeko ahoskera lekukotzen du Azkoitiko hirigunean eta Zumaiako hiriguneko adinekoen jarduna ere azken honen hots antzeko

batekin identifikatzen du¹⁰, nahiz eta Zumaiako gazteen artean [j] nagusitu dela aitortu (<mendi[j]a>). Azken hots hau da, leherkari sabaikari ahostuna [j], gainontzekoan nagusi dena; hau da, Gipuzkoako iparraldean, Lapurdiko kostaldean eta Nafarroan (Bortzirietan, Sunbillan eta Aranon eta Sakana gehiengan).

Atal honetan aipatutako autoreen lanak informazio iturri garrantzitsu izan badira ere, informazio iturri gehiago daude lan honen atzean. Izan ere, herri jakin bateko hizkeraren xehetasun konkretu batzuen inguruko azterketa bat gauzatzeko, herriotan bertako hizkera aztertzeke egindako proiektu edota herritarren lekukotasunak jasotzea da baliabide fidagarri eta zehatzena. Horretarako, ahotsak.eus webguneko grabaketetan oinarritu da lan hau, hurrenez hurren 2005, 2006, 2007, 2008, 2012, 2021 eta 2022an burututako grabaketetan, zehazki.

Zumaiakoei dagokienean, grabaketok bi proiektu ezberdinen emaitza dira¹¹; hala nola, *Zumaiako ahotsak* eta *Zumaiako hizkera*. Getariakoari dagokionez, aldiz, proiektu bakarra dago: *Getaria: euskara eta itsasoa*. Alde batetik, *Zumaiako hizkera* eta *Getaria: euskara eta itsasoa* proiektuok, Euskara Biziberritzeko Planaren barruan, herri bietako udalek (2006an Getariaren kasuan eta 2007an Zumaiarenean) bakoitzak norbere herriko hizkera biltzeko eta aztertzeke sorturiko beka baten ondorio dira. Proiektu hauen emaitza dira *Getaiko euskera* (Agirrebeña *et al.*, 2017) eta *Zumaiako euskara* (Agirrebeña *et al.*)¹² lanak, zeinak ikerketa lan honen abiapuntu sendo izan diren. Horrez gain, aipatu berri denez, Zumaiian badago beste proiektu bat: *Zumaiako ahotsak*. Azken hau, Zumaiako Udalak eta Badihardugu Euskara Elkarteak 2021ean elkarlanean martxan jarritako proiektua da, 1950-1980 hamarkadetako historia eta bizipenak jasotzeko helburuarekin sortua. Esparru ezberdinetako 10 herritarren grabaketez osaturiko proiektua da, ahotsak.eus-en entzungai aurki daitekeena.

Gauzak hala, proiektu hauek erakunde desberdinek sortu dituzten plan edota ikerketa-lanak dira, non lekuko ezberdinen grabazioetako ahotsak biltzen diren, guztiak ere herriko hizkera eta ondarea jaso, lekukotu eta aztertzea asmo nagusizat dutelarik. Grabazio-lan hauek oso garrantzitsu eta interesgarri gerta daitezke, batez ere, ikerlan hau bezalako

¹⁰Autore bera bere beste lan batean, Zuazo (2006), hots hau [j] gisa izendatzera ere ausartzen da.

¹¹Horrez gain, badago beste lan bat, 2007an Xabier Azkue eta Imanol Azkue zumaiarrek argitaraturiko Zumaiako mapa toponimikoa. Hori aurrera eramán ahal izateko, 2005. urtean 35 lagun elkarriketatu zituzten, gehienak zumaiarrak eta beste 5 Itziarkoak. Zumaiako toponimia biltzerakoan egindako grabaketa horietako bat edo beste ere baliatu da ikerlan honetan.

¹²Argitaratu gabea.

kasuetarako; izan ere, aurreko atalean aipatu den bezala, bibliografia idatzian herriotako hizkera eta hots epentetiko konkretuen inguruko gauza gutxi dago. Horregatik, grabazio hauetako hotsei erreparatzeaz gain, herriko hizkera eta kontu fonetiko eta fonologikoen inguruan zenbait herritarrek dituzten uste eta esanak ere kontuan hartu dira.

Bi herriotako hizkera aztertzeko lekukotasunen grabaketei heldu baino lehen, beraz, Zumaiako herritar izateaz gain, euskal filologo eta irakasle den Joxefran Izpizuaen transkripzio batzuei helduko zaie. Miren Zabaletak eginiko hitzun honen transkribaketak bereziki baliagarriak izan dira, bere audioa entzuteko aukera eduki ez arren, Zumaia eta Getariako euskararen fonetika eta fonologiak diharduelako.

Zumaiako hizkera dialektologikoki kokatzeari buruz, Izpizua Zumaiako hizkera mendebaldeko gipuzkera dela eta honen eragina Getariaraino iristen dela defendatzen du. Horrez gain, Zumaiako hizkerak hurbilen Getariakoa duela dio, Itziar (Deba) eta Zestoakoetatik urrunago baitago (Izpizua, <https://ahotsak.eus/zumaia/pasarteak/zum-004-004/>, [2023/02/23]). Fonetika eta fonologia kontuei dagokienean, honako hau dio *-i* + *-a* elkarketa eta Zumaiako eta Getariako hizkeren arteko konparaketaz:

- Filologian batez ere fonetika ta fonologian espezializatu nitzanez, ba, iruitzen zait, gauza batzuk badiala pixkat erne ibiltzekuak, ez? Erne, edo... edo harrapatzekuak, ez? Nahiko Zumaiko bereizgarria iruitzen zait galtzen ai dan *-i -a* elkarketak. Hau da, epentesi hori, *-dxa* edo hori. Eta gaiñea, bueno, esaerak oan ere badaude, ba, nola aldatzen juten dan, ba, Zarautzen *-ya*, eta ya Getaitik Zumai aldea ya *-dxa*, Itziarren *-xa*. Eta ya hemendik ya Mutrikura *-xa* ta horrela, ez? Zumaiko da hori, ba, *-xa* hori, baina ahostuna, *-dxa*, ez?
- [Getariakoaren berdina] Neretzat 'e bai, baiña zaila da esatia, ze guk ama Getaikua deu, baiña nik hala bizi izan det, neretzat berdiña da hori, Getaikua ta Zumaikua. Getaiia ta Zumaian arteko beste diferentziak izango dia igual ba, *t*-ren palatalizazioa... [...] Baiña hori ez da *-ia*, hori beste kontu bat da, ez?
- [Hemen normalian bustidura haundiagoa] Bai, bai. Zenbat eta mendebalderago, gehidxo eiten da, ez? (Izpizua, <https://ahotsak.eus/zumaia/pasarteak/zum-004-003/>, [2023/02/26]).

Getariako kontuak momentuz albo batean utzi eta Zumaiakoetan jarriko da arreta. Horretarako, hitzun honek berak beste elkarrizketa batean Zumaiako kale eta auzoetako hizkera eta lexikoaren arteko aldean inguruan dioena ekarri da:

- [...] Geo badakit Zumaian bereizten diala, bereizi izan diala, bereiztu izan diala baita 're, bai San Telmo kaleko hixkerak eta bai Arritokietako kalekuak. Eta, eta geo, ba Arrukalekuak eta abar, ez? San Telmo kalekuak, ba, ya itsasoko zea gehio ta hola, eta ya Arritokietakuak, ba, ya baserritarraguak eta...
- [Benetako bereizketa bat] Hala esaten due, bai. [...].

- [Auzuetan desberdiña] Bai, bai. Oikian dudikan gabe, bai, bai. Hori ya, bueno, Zumaidxa da administratriboki, baiña hizkeraz beste kontu bat da, ez?
- [Hizkeraz gehiago Zestua, Aizarna, Aizarnazabal ingurua] Bai, bai. Iruitzen zait alde horta bai lerratuko da, ya barrualdeko zea, ez?
- [Beste auzuetan, Elorrixa ta] Elorrixa ez da Zumaia.
- [San Migel auzua] San Migelen ez dakit oso ondo. [...] Hor, karo, Artadiko baserri batzuk Zumai aldea dia ta beste batzuk Oiki aldea. Ordun ez dakit hor ere aurkituko dezuen diferentziarik edo, ikusi beharko litzateke. Pentsatzekoa da hor nunbaitetik isoglosa batzuk pasatzia, ez? Eta hor alde batzuk, aldaketa batzuk gertatzia. [...] Ez dakit. Bai, baiña bueno, nabarmenena behintzat auzo aldetik Oikikua da desberdiñena. Eta gero Zumai barruan, ba, hori, ba, nik aitu izan detenez behintzat, ba, San Telmo kalekua nahiko, nahiko bitxia zan, nahiko beria, ez? Bizimodua're, pues, arrantzaleen kalia zan eta nahiko desberdiña zuten. Orduan, pues, normala da hor pentsatzekua, bai. Hartu-emanak ere beste batzuk izango zituzten itsasoko jendiakin eta bueno, bizibidea desberdiña izanik, normala, ez? (Izpizua, <https://ahotsak.eus/zumaia/pasarteak/zum-004-008/>, [2023/02/26]).

Honekin batera, nahiz eta formakuntza akademiko aldetik aurreko hiztunaren esanei emandako pisu bera ematea zilegi ez litzatekeen, Zumaiako herritar Abelin Linazisororen esanak ere interesgarri jazo dira ikerketa lan honetarako. Berak, Izpizuaren gisan, Zumaiako arrantzale eta baserritar kulturen arteko ezberdintasunak azpimarratzen ditu:

- Nahi det esan, baserritar kulturak... Arrantzale kulturak eta baserritar kulturak diferentzi haundia die hemen Zumaian. Eta adibidez, ba, estazio aldekuak edo Jadarre edo Gau Txori aldekuak... Jadarre barriyua ezautzen dezue?
- Ba, alde hortan, ba, zeuden lehen bi baserri eta etxe bat, geheyo ezer ez. Ba, hanguk ya hizketan diferente hitz eiten zien, ez gu bezela. Eta baita estaziyokuak ere bai. Guk "estadixua" esaten giñun, "estadixokuak", ezta? Haiek ya, guk "gorrixa", "haundixa", "eurixa", eta haiek "euriya", "haundiya", "gorriya", Zauztarrak bezela. O Arruakuak bezela, ezta?
- Oikiyan'e baserritarren... "Oikiya", "Oikiya", "Oikiya". Ta guk "Oikixa" (Linazisoro, <https://ahotsak.eus/zumaia/pasarteak/zum-005-002/>, [2023/02/26]).

Getariaren kasuan, hasiera batean Izpizuak aipatutakoaz gain, ez da gai honen beste informazio gehigarririk jaso ahotsak.eus webguneko bi herriotako hiztunen partetik, eta beraz, *Getaiko euskera*-n (2017) honi buruz jasotakoak ekarri dira:

Ikusi daitekenez, Getarian bi eredu daude : baserritarren artean *ogiya* bezalako formak erabiltzen dira, baina kaletar eta arrantzaleen artean *ogidxa* bezalakoak dira nagusi. Belaunaldi nagusienetan gordetzen da, gehienbat, azken ebakera hori. Zenbat eta hiztun gazteagoak, orduan eta gutxiago erabiltzen da ebakera hori, gazte gehienek eskualde osoan arruntagoa den *-y-* aldaerarekin ordezkutzen dutelarik; Zumaian ere antzeko fenomeno gertatu da (Agirrebeña, *et al.* 2017).

Informazio hau guztia bildu ostean, herritarren lekukotzak aztertuko dira ondorengo atalean, datuen analisisien atalean, hain zuzen. Atalaren izenburuak iradokitzen duen moduan, hiztunengandik bildutako datuak analizatu edo aztertu, eta hortik ateratako emaitzak plazaratuko dira. Behin hori eginda, datu horiek orain arte jasotako informazio eta esanekin bat datozen ala ez, edo zertan bai eta zertan ez ikusi eta konparatu ahal izango da.

3 DATUEN ANALISIA

Zumaia eta Getariako herritarren lekukotasunei helduko zaie atal honetan, hauen esanak bilduz eta aztertuz. Horretarako, lehenik eta behin, datuak biltzeko eta hiztunen hautatzeko erabilitako prozedura edo metodologia azalduko da, ondoren bi herriotan bildutako hiztunen grabazio zatiak aztertuko, eta azkenik, datu bilketaren emaitzak plazaratuko dira. Erabilitako datu guztiak eranskinean emango dira.

3.1 METODOLOGIA

3.1.1 DATU BILKETA

Bokal artean testuinguru desberdinetan (jarraian zerrendatu eta sakonduko direnak) sor daitezkeen kontsonante epentetikoaren inguruko ikerketan aurrera egiteko, lehenik eta behin, erabilitako prozedura edo lan egiteko moduari helduko zaio. Sarrera eta helburuen aurkezpenak osatzen duten 1. atalean jada aurreratu den moduan, lan hau ahotsak.eus webgunean bildutako lekukotasunez baliatu da. Zein hiztun hautatuko diren erabaki eta bakoitzaren grabazio desberdinak arakatu dira, baita ikerketarako egokienak direnak hautatu ere (ulergarritasuna eta gai edo tematika aniztasuna baldintzat hartuz). Webguneotan, hiztun kopuru bati gai jakin batzuen inguruan zenbait elkarrizketa egin zaizkie, hizketa libre baimenduz. Hori hala izanik, ez da hitz konkretu bat hiztun desberdinek nola gauzatzen duten topatu, elkarrizketa desberdinetako zatiak hartu eta hauek aztertu baitira, corpusean azaltzen diren agerraldiaren arabera azterketa burutuz.

Lekukoen banaketaren lehen pausua herri bakoitzeko auzo desberdinetako hiztunen hautaketa egitea izan da, ahalik eta hiztun barietate ezberdinengana heltzeko asmoz. Kultura eta bizimodu zein bizileku ezberdinetako hiztunek aztergai diren hots epentetikook (hau da, leherkari sabaikari ahostuna [ɣ], igurzkari sabaiaurreko ahoskabea [ʃ] eta igurzkari sabaiaurreko ahostuna [ʒ]) gauzatzen dituzten, berdin gauzatzen dituzten ala zer modutara desberdintzen diren jakitea izan da helburua; hortik abiatuz, euren arteko desberdintasun hauekin nolabaiteko multzokatze edo ondorioak atera ahal izan dira.

Zumaiak 10.153 biztanle ditu (Instituto Nacional de Estadística, 2022) eta gehienak herriaren erdigunean bizi dira, nahiz eta kanpoaldean badituen auzo eta bizigune gehiago;

hala nola, Artadiko San Migel, Oikia, Narrondo edo Larrondo eta Elorriaga¹³. Aipagarria da halere, hiru hauen artean Oikia auzoak duen nortasun berezia. Izan ere, auzo hau berau da herritik urrunen dagoena, eta baita handiena dena ere; ezaugarri horiek izan daitezke auzo honi herri izaera berezia ematen diotenak (<https://ahotsak.eus/zumaia/>, [2023/03/04]).

Ondoko irudiak Zumaiaiko mapa islatzen du¹⁴:



1. Irudia: Zumaiaiko auzoen mapa (Zumaiaiko Udaleko web-orriko turismo ataletik hartua; nik moldatua)

Getariak, berriz, 10 km²-ko azalera dauka eta 2.825 (INE, 2022) biztanle ditu. Gehienbat itsasoari begira bizi izan den herria izan da Getaria, eta moilari lotuta hazi zen herrigune nagusia; hala ere, beste lau auzune ditu, nekazal girokoak guztiak: Askizu, Eitzaga, Meaga eta San Prudentzio (<https://ahotsak.eus/getaria/>, [2023/04/10]).

¹³Elorriaga auzoa egiaz Itziarren barnean kokatzen den arren, ikerketa lan honetan Zumaia eta Elorriaga auzoen arteko muga-mugako pare bat baserriak hiztunen grabazioak ere aztertu dira; hautaketa honen arazoia kokagune honetako bizilagunek Zumaiarekiko duten gertutasuna izan da.

¹⁴Auzoak hobeto kokatu eta irudikatze herri banatuko mapak txertatu dira, mapa bakoitzaren gainean herriari dagozkion auzoen izen eta kokapena moldatu zaizkielarik, irakurlearen ulermenerako baliagarri izango direlakoan.

Beste honek, berriz, Getariako mapa islatzen du:



2. Irudia: Getariako auzoen mapa (Getariako Udaleko web-orritik hartua; nik moldatua)

Auzoen banaketarekin batera, ondoko bereizketa ere kontuan hartu da: Zumaiaren kasuan kaletarrak eta arrantzaleak, edo arrantzale-kulturakoak; Getariaren kasuan, aldiz, herrigunean bertan bizi direnak eta herrigunean bai, baina kale-baserrietan bizi direnak. Zehaztasun gehiagorekin adierazteko, alde batetik, Zumaiako kaletarren multzoak Estazio inguru eta Erribera Kalea (antzina Portu Kale izendatua) hartuko lituzke gutxi gorabehera; arrantzaleenak, bestetik, Mari, San Telmo, Arritokieta eta San Jose Kale ingurua. Getarian, berriz, banatu diren 2 azpimultzotako hiztunak denak herrigunean kokatzen direnez, herrigune honen mugak zehaztu dira: “Getariako Alde Zaharra edo herrigunea Gipuzkoako kostaldeko bazter askotatik ikusten den San Anton mendi eta penintsularen inguruan zabaltzen da. Penintsula lehorrera lotzen duen istmoaren gainean dago Getariako herrigune zaharra” (Agirrebeña *et al.*, 2017).

Zumaian, egun ez bezala, arrantzale kultura eta jarduera herrian askoz zabalduago zegoen arren, Getariaren kasuan are nabarmenagoa zen. Kontuan izan behar da, Getaria gehienbat itsasoari begira bizi izan den herria dela (Agirrebeña *et al.*, 2017). Halere, egun Getariak herri arrantzale izateari utzi ez badio ere, ez du garai bateko bizimodu eta egoera bera mantentzen, lehen herritar guztiak baitzeuden, modu batera edo bestera, arrantzale kultura horri estuki loturik. Hona hemen Jaxinto Isasti getariarrak Getariaren herri izaera eta

getariarren bizimoduari buruz dioena: “Arrantzalia, hemen jenerala arrantzalia. Arrantzalia ta basarritarra. Kaleiko bakar-bakarra lehorrian lana iten zuenak Zarauzko tailerretan, ebanisteidخان ta horrelako... bestela dana arrantzaliak” (Isasti, <https://ahotsak.eus/getaria/pasarteak/get-003-002/>, [2023/04/03]). Hori dela eta, ezin izan dira Zumaiakoekin erabilitako irizpide berdinei jarraiki banandu Getariako hiztunak.

Behin hiztunak eta euren grabazioak ere erabakita, erabili behar den entzungai bakoitzak transkripzioerik baduen ala ez behatu da. Transkripzioa lehendik egina zuten grabazioen kasuan, bakoitza osoki irakurri eta ikerlan egileak bere oharrenaren arabera aldaketak egin dizkio, lan honetarako interesgarri direnak; hala nola, leherkari sabaikari ahostundun [j], igurzari sabaiaurreko ahoskabedun [j] eta igurzari sabaiaurreko ahostundun [3] kontsonante epentetikoetan zentratutako aldaketak. Transkribaketarik egina ez duten entzungaienak, berriz, osoki autoreak berak grabazioak entzun eta hortik interpretatu duenaren emaitza dira. Beti ere autorearen intuizioari jarraituz jokatu da, beraz. Transkribapen fonetikotzat har daitezke guztiak, ortografian oinarrituta egonik ere xehetasun foniko esanguratsuenak markatuta daudelako, nahiz eta transkripzio fonikoetan ohikoa den notazioa (NAF) erabili ez.

Transkribaketan autore nagusia bata ala bestea izanagatik eta transkribaketok aldaketa gutxiago edo gehiago jasan izanagatik ere, gorago aipatu bezala, guztiak beren osotasunean eranskinean ipini dira. Bertan elkarrizketatzailearen hitzak eta baita elkarrizketan bertan interesatzen den hiztunaz gain ageri litezkeen beste hiztunik egonez gero ere, guztiak agertzen dira eranskineko transkribaketetan. Aukeratutako hiztunaren esanak letra lodiz idatzirik ageri dira, eta testuinguru desberdinetan erabiltzen dituzten bokalarteko kontsonante epentetiko ezberdinak azpimarraturik daude, koloreka desberdinduz (kontsonante epentetikoa txertatzeko egokia den bokalarteko testuinguru bat izanik hiztunak halakorik ahoskatu ez badu, bi bokal hauek ere letra lodi gorritz eta azpimarraturik adierazi dira).

Jarraian datorren azpiatalean hiztunen profilekin egindako taulan ikusiko denez, hiztun bakoitzaren grabazioetatik erabilitako grabazio denbora edo tartea ere adierazi da. Gutxienez, guztiekin 3 minutuko grabazio-tartea hartzea izan da irizpide nagusia; behin hortik abiatuta, ordea, zenbait hiztunei beste batzuei baino dezente denbora gehiago eskaini zaie. Horren arrazoi nagusiak, ulergarritasun eza, topatu nahi diren ezaugarriak zenbait testuingurutan aurkitzeko zailtasuna, eta baita, zenbait grabazio binaka edo hirunaka grabatuak izan direnez, halakoetan interesatzen diren hiztunaren esanak ere

laburragoak edo gutxiago izan dira, eta beraz, grabazio denbora luzeagoa hartu da. Gainera, aipatu beharrekoa da, guztiekin, gutxienez, bi grabazio ezberdin erabili direla eta batzuekin baita 3 edo 4 ere.

3.1.2 HIZTUNAK

Lekukotasun kopuruari dagokionean, aurreko puntuan aipatu ditugun multzokatze irizpideei helduz (Zumaian 3 talde: auzotarrak, kaletarrak eta arrantzaleak; Getarian ere beste hainbeste: auzotarrak, herrigunekoak eta herriguneko kale-baserritarrak), talde bakoitzetik bi lekuko topatzea izan da helburua: Halere, kasu batzuetan hori ezinezko gertatu da; batetik, Zumaian, Artadi auzoan bakarria bildu da; bestetik, Getarian, San Prudentzio eta Eitzaga auzoetan bakarria topatu da, eta Meaga auzoan, berriz, batere ez.

Aukeratutako profilaren inguruan, kasu batzuetan hala egin ezin izan bada ere (lekukotasunen urritasunagatik), genero oreka ere mantentzea hartu da kontutan, ahal bezainbatean emakume eta gizonezko kopuruak orekatuz. Adin-tarteari dagokionean, berriz, ez da desberdintasun nabarmenik egon; izan ere, ahotsak.eus webguneko lekuko hauen adin-tartearen batz bestekoa 76 urtekoa da, hautatutako hiztunena 62tik 87urtera bitartekoak izanik¹⁵. Adina zehazterako orduan, kasu guztietan grabaketa egin zitzaizen momentuan zuten adina hartu da kontuan.

Lekukotasunen datuak argiago gera daitezten, herri bakoitzeko hiztunen profilaren irudia eman da taula banatan. Hiztun bakoitzari, dagozkion izen-abizenak, adina, generoa, jaiolekua eta grabazio-denbora zehaztuko dira bertan.

Hona hemen, hautaturiko Zumaiako hiztunekin eginiko taula:

2. Taula: Zumaiako hiztunen profila

<u>HIZTUNA</u>	<u>ADINA</u>	<u>GENEROA</u>	<u>JAIOLEKUA</u>	<u>GRABAZIO DENBORA</u>
1.Brigida Ibarbia Ugarte¹⁶	1935; 72 urte	Emakumea	Oikia	3'55 min (0'3 + 3'25)
2.Manuel Ugarte Lopetegi	1945; 62 urte	Gizona	Oikia	5'5 min (3'5 + 2'05)
3.Joxe Etxabe Udabe Bitarte	1926; 82 urte	Gizona	Larrondo	8'19 min (1'03 + 2'22 + 1'08 + 2'01 + 1'45)
4.Miren Azpeitia Egaña	1930; 78 urte	Emakumea	Larrondo	3'2 min (2'22 + 0'58)

¹⁵Ahotsak.eus webguneko gainontzeko lekuko gehientsuenak ere adin-tarte horren bueltan dabilta.

¹⁶Lanerako erabili diren hiztunen izen-abizenak osoki emango dira; izan ere, publikoak dira.

3. DATUEN ANALISIA

5.Benito Etxabe, Etxabe	1928; 79 urte	Gizona	Artadi	6'55 min (2'35 + 3'10 + 1'10)
6.Klaudio Etxabe Udabe, Pikote	1926; 81 urte	Gizona	Elorriaga	4'25 min (3'10 + 1'15)
7.Joxe Manuel Agirre Eizagirre, Endañeta	1943; 69 urte	Gizona	Elorriaga	3'04 min (0'47 + 2'17)
8.Mertxe Irureta Mujika	1947; 75 urte	Emakumea	Kaletarra (Erribera)	6'39 min (4'58 + 0'43 + 0'5)
9.Maria Antonia Goikoetxea Elustondo	1946; 75 urte	Emakumea	Kaletarra (Erribera)	7'09 min (3'44 + 3'25)
10.Joseba Garate Elosua	1936; 72 urte	Gizona	Arrantzalea (Mari)	2'15 + 1'15 + 2'10 = 5'4 min
11.Jesus Gorostola Iribar	1929; 79 urte	Gizona	Arrantzalea (Arritokieta)	5'35 min (1'40 + 0'5 + 3'05)

Gauza bera egin da Getariatik hautaturiko hiztunekin ere:

3. Taula: Getariako hiztunen profila

<u>HIZTUNA</u>	<u>ADINA</u>	<u>GENEROA</u>	<u>JAIOLEKUA</u>	<u>GRABAZIO DENBORA</u>
1.Julian Sorazu Aginaga	1931; 75 urte	Gizona	Askizu	3'28 min (1'12 + 2'16)
2.Eugeni Lazkano Ulazia	1919; 87 urte	Emakumea	Askizu	3'46 min (1'22 + 2'24)
3.Jose Ezenarro Isasti	1924; 82 urte	Gizona	Eitzaga	6'5 min (2'35 + 4'15)
4.Jose Mari Erkizia Osa¹⁷	1925; 81 urte	Gizona	San Prudentzio	3'39 min (1'21 + 2'18)
5.Jaxinto Isasti Aizpuru	1932; 74 urte	Gizona	Herrigunekoa, arrantzalea	4'25 min (2'35 + 1'5)
6.Claudia Iribar Salegi	1934; 74 urte	Emakumea	Herrigunekoa, arrantzale-kultura	5'15 min (4 + 1'15)
7.Maritxu Ezenarro Idiakes	1929; 77 urte	Emakumea	<i>Higionekua</i> kale-baserria (Aldamar)	4'22 min (2 + 2'22)
8.Juanito Eizagirre Ulazia	1930; 76 urte	Gizona	<i>Santinekoa</i> kale-baserria (Herrerrieta)	5'10 min (3'16 + 1'54)

¹⁷Izatez Joxe Mari Erkizia Arroa Goikoa auzoko *Zugastitxiki* baserrian jaioa zen eta, San Prudentzio auzoarekin zuen lotura, bertako *Bizkarraga* baserrira ezkontzearen ondorioz sortu zen. Ezkondu osteko bere bizitzako urte guztiak bertan eman zituen. San Prudentzio auzoko beste lekukorik topatu ez denez, Erkiziaren lekukotza hartu da kontuan.

3.2 DATUAK HERRIKA

3.2.1 ZUMAIAKO DATUAK

Lekukotasunak banaka-banaka aztertuko dira, bokalarteko kontsonante epentetikoa zein testuingurutan gertatzen den adieraziz (ez soilik *-i + -a* kasuetako egoera morfologikora mugatuz), beti egiten duten edota zein erabiltzeko joera duten, eta azkenik, baldintzak aldeko izanik, zein testuingurutan egiten ez duten. Lehen esan bezala, elkarrizketen transkribaketak, beren osotasunean, eranskinean daude ikusgai; izan ere, atal hau transkribaketa horietatik ikerketa lan honetarako interesgarri diren datu eta adibideak biltzera mugatuko da.

Ondoren, Zumaiako lekukotasunen datuak aurkeztuko dira:

4. Taula: Zumaiako lekukotasunak

<p>1.Brígida Ibarbia Ugarte; OIKIA.</p>	<ul style="list-style-type: none"> · Joera orokor eta ia erabatekoa, leherkari sabaikari ahostundun [j] kontsonante epentetikoa erabiltzearena da; adb. <Oiki[j]a>, <i[j]o>, <gehe[j]o>. · <Zuma[j]a>¹⁸ zein <Zuma[j]a> bi aldaerak tartekatzen ditu, bigarrean leherkari eta lehenengoan ez. · <behe[j]an> hitza litzateke aurkitutako salbuespen bakar; izan ere, testuinguru egokia izanik, hiztunak ez darabil kontsonante epentetikorik. · Epentesiak gertatzen direneko testuinguruak¹⁹: <ul style="list-style-type: none"> ▪ <i> eta <a> bokalen artean; adb. <Oiki[j]a>, <txiki[j]auei>. Txertaketaren bilakabidea gertatu ondoren, zenbaitetan <i> bokala galtzeraino ere iritsi da; adb. <Zuma[j]a>. ▪ <i> eta <o> bokalen artean; adb. <i[j]o>²⁰, <zi[j]on>, <koleji[j]oa>, <di[j]oeru>. Txertaketaren bilakabidea gertatu ondoren, zenbaitetan <i> bokala galtzeraino ere iritsi da; adb. <gehe[j]o>. ▪ <i> eta <e> bokalen artean, kasu honetan bikakabidearen ostean <i> bokala galtzera iritsi delarik; adb. <ho[j]ek>.
--	---

¹⁸Idatzizkoan <i> bokala diptongoaren bigarren zati, hau da zati ez-silabagile den kasuetan, ahozkoan atzetik jarraitzen dion silabari atxiki eta [j] hurbilkari gisa jokatzeko duela interpretatu da; beti ere, autoreak bere oharren arabera jokatu duela kontuan hartuz.

¹⁹Ikerlan hau testuinguru jakin horietan txertatutako kontsonante epentetikoak identifikatu eta aztertzea mugatu da, xehetasun fonologiko handietan sartu gabe. Hitzean bertan bilakabide fonologiko gehiago baldin badaude ere, horiek ez dira aipatuko.

²⁰Lehenago, 2. puntuan aipatu bezala, bestelako gertakaria da hau; hala nola, <i> ondorengo <d> eta <g>-ren palatalizazioa, Nafarroa Garaiko eta Gipuzkoako lurraldetan lekukotzen dena (Mitxelena, [1961], 1985).

<p>2.Manuel Ugarte Lopetegi; OIKIA.</p>	<ul style="list-style-type: none"> · Joera orokor eta ia erabatekoa, leherkari sabaikari ahostundun [j] kontsonante epentetikoa erabiltzearena da; adb. <Oiki[j]an>, <berri[j]a>, <tzi[j]en>. · <fronto[j]a>, <ja[j]ero>, <balo[j]a> eta <ata[j]an> hitzak dira identifikatutako salbuespenak; izan ere, testuingurua egokia izanik, hiztunak ez darabil kontsonante epentetikorik. · Epentesiak gertatzen diren testuinguruak: <ul style="list-style-type: none"> ▪ <i> eta <a> bokalen artean; adb. <Oiki[j]an>, <berri[j]a>, <ireki[j]a>, <guzti[j]an>, <beatzi[j]ak>, <t'erdi[j]ak>, <harri[j]ak>, <haundi[j]aguak>. Txertaketaren bilakabidea gertatu ondoren, zenbaitetan <i> bokala galtzeraino ere iritsi da; adb. <beh[j]ai>, <Geta[j]an>, <Zuma[j]an>. ▪ <i> eta <o> bokalen artean, kasu honetan bilakabidearen ostean <i> bokala galtzera iritsi delarik; adb. <gehe[j]okuak>, <zimita[j]oa>. ▪ <i> eta <e> bokalen artean; adb. <tzi[j]en>, <zi[j]en>. Txertaketaren bilakabidea gertatu ondoren, zenbaitetan <i> bokala galtzeraino ere iritsi da; adb. <ha[j]lek>.
<p>3.Joxe Etxabe Udabe Bitarte; LARRONDO.</p>	<ul style="list-style-type: none"> · Joera orokor eta ia erabatekoa, leherkari sabaikari ahostundun [j] kontsonante epentetikoa erabiltzearena da; adb. <tzi[j]en>, <a[j]untamentukuak>, <Zuma[j]a>. · <tz[i]en> eta <tzi[j]en> bi aldaerak tartekatzen ditu, bata epentesiarekin eta bestea gabe. · <ja[j]ero> hitza litzateke aurkitutako salbuespen bakar; izan ere, testuingurua egokia izanik, hiztunak ez darabil kontsonante epentetikorik. · Epentesiak gertatzen diren testuinguruak: <ul style="list-style-type: none"> ▪ <i> eta <a> bokalen artean; adb. <Oiki[j]atik>, <azpi[j]an>, <berri[j]a>, <mendi[j]an>. Txertaketaren bilakabidea gertatu ondoren, zenbaitetan <i> bokala galtzeraino ere iritsi da; adb. <Zuma[j]a>, <errome[j]ak>. ▪ <i> eta <o> bokalen artean; adb. <Ori[j]o>, <gutxi[j]o>. Txertaketaren bilakabidea gertatu ondoren, zenbaitetan <i> bokala galtzeraino ere iritsi da; adb. <zitza[j]on>, <gehe[j]o>. Horrez gain, <i> eta <u> bokalen arteko kontsonante epentetikoaren adibidea ere topa daiteke, <o>-ren disimilazioaren ondorioz sorturiko <u> bokalarena, hain zuzen; adb. <a[j]untamentukuak>. ▪ <i> eta <e> bokalen artean; adb. <tzi[j]en>, <zi[j]en>, <di[j]e>.
<p>4.Miren Azpeitia Egaña; LARRONDO</p>	<ul style="list-style-type: none"> · Joera orokor eta ia erabatekoa, leherkari sabaikari ahostundun [j] kontsonante epentetikoa erabiltzearena da; adb. <erdi[j]a>, <bi[j]ak>, <toki[j]an>. · <Zuma[j]a> zein <Zuma[j]a> bi aldaerak tartekatzen ditu hiztunak, batean leherkari eta bestean ez. · Epentesiak gertatzen diren testuinguruak: <ul style="list-style-type: none"> ▪ <i> eta <a> bokalen artean; adb. <erdi[j]a>, <bi[j]ak>, <toki[j]an>, <zubi[j]a>. Txertaketaren bilakabidea gertatu ondoren, zenbaitetan <i> bokala galtzeraino ere iritsi da; adb. <Zuma[j]a>.

	<ul style="list-style-type: none"> ▪ <i> eta <o> bokalen artean; adb. <barri[j]o>, <di[j]oe>. Txertaketaren bilakabidea gertatu ondoren, zenbaitetan <i> bokala galtzeraino ere iritsi da; adb. <gehe[j]o>. Horrez gain, <i> eta <u> bokalen arteko kontsonante epentetikoaren adibidea ere topa daiteke, <o>-ren disimilazioaren ondorioz sorturiko <u> bokalarena, hain zuzen; adb. <telebisi[j]uan>. ▪ <i> eta <e> bokalen artean, kasu honetan bikakabidearen ostean <i> bokala galtzera iritsi delarik; adb. <ha[j]ek>.
<p>5.Benito Etxabe Etxabe; ARTADI.</p>	<ul style="list-style-type: none"> · Joera orokor eta ia erabatekoa, leherkari sabaikari ahostundun [j] kontsonante epentetikoaren erabiltzearena da; adb. <gehe[j]o>, <guzti[j]a>, <gehe[j]enak>. · <Azpeitt[i]an> eta <Ama[j]a> izen bereziak, eta baita <ja[j]ero> hitza ere, dira identifikaturiko salbuespenak; izan ere, testuingurua egokia izanik, hiztunak ez darabil kontsonante epentetikorik. · Epentesiak gertatzen diren testuinguruak: <ul style="list-style-type: none"> ▪ <i> eta <a> bokalen artean; adb. <guzti[j]a>, <txiki[j]a>, <haundi[j]a>, <berri[j]a>. Txertaketaren bilakabidea gertatu ondoren, zenbaitetan <i> bokala galtzeraino ere iritsi da; adb. <Zuma[j]an>, <errome[j]a>, <behe[j]an>. ▪ <i> eta <o> bokalen artean; adb. <kumuni[j]o>. Txertaketaren bilakabidea gertatu ondoren, zenbaitetan <i> bokala galtzeraino ere iritsi da; adb. <gehe[j]o>, <erreme[j]o>. Horrez gain, <i> eta <u> bokalen arteko kontsonante epentetikoaren adibidea ere topa daiteke, [o]-ren disimilazioaren ondorioz sorturiko <u> bokalarena, hain zuzen; adb. <Diputazi[j]uak>, <estazi[j]uan>. ▪ <i> eta <e> bokalen artean; adb. <tzi[j]en>. Txertaketaren bilakabidea gertatu ondoren, zenbaitetan <i> bokala galtzeraino ere iritsi da; adb. <gehe[j]enak>, <ho[j]ek>.
<p>6.Klaudio Etxabe Udabe Pikote; ELORRIAGA.</p>	<ul style="list-style-type: none"> · Joera orokorra igurzkari sabaiaurreko ahostuna [ʒ] erabiltzearena da, baina halere, ez du nagusitasun guztizkorik. Izan ere, <di[j]e> aditz laguntzailearen lekukotutako adibide guztietan, leherkari sabaikari ahostundun [j] kontsonante epentetikoaren darabil, eta gauza bera <ho[j]ek> erakusleari dagokionean (nahiz eta azken honen adibide bakarra topatu den). · <txiki[j]a> zein <txiki[ʒ]a> bi aldaerak tartekatzen ditu, batean leherkari eta bestean igurzkari. · <behe[j]an> hitza da identifikaturiko salbuespena; izan ere, testuingurua egokia izanik, hiztunak ez darabil kontsonante epentetikorik. · Epentesiak gertatzen diren testuinguruak: <ul style="list-style-type: none"> ▪ <i> eta <a> bokalen artean; adb. <argi[ʒ]a>, <zuri[ʒ]a>, <haundi[ʒ]ak>, <txiki[ʒ]a>, <txiki[j]a>, <harri[ʒ]a>, <Elorri[ʒ]atikan>, <kanbi[ʒ]auta>. ▪ <i> eta <o> bokalen artean; adb. <di[ʒ]ok>.

	<ul style="list-style-type: none"> ▪ <i> eta <e> bokalen artean; adb. <di[j]e>, <di[j]ek>, <daki[ʒ]enak>. Txertaketaren bilakabidea gertatu ondoren, zenbaitetan <i> bokala galtzeraino ere iritsi da; adb. <ho[j]ek>.
<p>7.Joxe Manuel Agirre Eizagirre Endañeta; ELORRIAGA.</p>	<ul style="list-style-type: none"> · Joera orokor eta ia erabatekoa, leherkari sabaikari ahostundun [j] kontsonante epentetikoa erabiltzearena da; adb. <basarri[j]an>, <ha[j]ek>, <ja[j]o>. · <famil[i]a> hitza da identifikaturiko salbuespena; izan ere, testuingurua egokia izanik, hiztunak ez darabil kontsonante epentetikorik. · Epentesiak gertatzen diren testuinguruak: <ul style="list-style-type: none"> ▪ <i> eta <a> bokalen artean; adb. <basarri[j]an>, <parroki[j]an>, <haundi[j]a>, <kanbi[j]au>. Txertaketaren bilakabidea gertatu ondoren, zenbaitetan <i> bokala galtzeraino ere iritsi da; adb. <Zuma[j]an>, <eroke[j]a>. ▪ <i> eta <o> bokalen artean; adb. <kumuni[j]o>, <koleji[j]o>. Txertaketaren bilakabidea gertatu ondoren, zenbaitetan <i> bokala galtzeraino ere iritsi da; adb. <ja[j]o>. Horrez gain, <i> eta <u> bokalen arteko kontsonante epentetikoaren adibidea ere topa daiteke, <o>-ren disimilazioaren ondorioz sorturiko <u> bokalarena, hain zuzen; adb. <kumuni[j]ua>, <koleji[j]ua>. ▪ <i> eta <e> bokalen artean; adb. <di[j]e>. Txertaketaren bilakabidea gertatu ondoren, zenbaitetan <i> bokala galtzeraino ere iritsi da; adb. <ha[j]ek>, <ho[j]ek>.
<p>8.Mertxe Irureta Mujika; KALETARRA (Erribera Kalekoa)</p>	<ul style="list-style-type: none"> · Joera orokor eta ia erabatekoa, leherkari sabaikari ahostundun [j] kontsonante epentetikoa erabiltzearena da; adb. <argi[j]a>, <balo[j]akin>, <gehe[j]enak>. · <eskurs[i]ua>, <argazk[i]a> eta <omenald[i]an> hitzak dira identifikaturiko salbuespenak; izan ere, testuingurua egokia izanik, hiztunak ez darabil kontsonante epentetikorik. · Epentesiak gertatzen diren testuinguruak: <ul style="list-style-type: none"> ▪ <i> eta <a> bokalen artean; adb. <argi[j]a>, <toki[j]an>, <iturri[j]a>, <haundi[j]ak>, <Oiki[j]a>, <zati[j]akin>, <antzerki[j]ak>. Txertaketaren bilakabidea gertatu ondoren, zenbaitetan <i> bokala galtzeraino ere iritsi da; adb. <balo[j]akin>, <barbe[j]a>, <peluke[j]a>, <ferrete[j]a>, <panae[j]an>. ▪ <i> eta <o> bokalen artean, kasu honetan bilakabidearen ostean <i> bokala galtzera iritsi delarik; adb. <zitza[j]on>, <gehe[j]o>. ▪ <i> eta <e> bokalen artean, kasu honetan ere bilakabidearen ostean <i> bokala galtzera iritsi delarik; adb. <gehe[j]enak>, <bea[j]ek>.
<p>9.Maria Antonia Goikoetxea Elustondo; KALETARRA (Erribera Kalekoa)</p>	<ul style="list-style-type: none"> · Joera orokorra leherkari sabaikari ahostundun [j] kontsonante epentetikoa erabiltzearena izanik ere, aurkitu dira pare bat salbuespen, non hiztuna igurzari sabaiaurreko ahostuna [ʒ] erabiltzera igarotzen den. Halere, azken honi dagokionean, aurkitu diren bi adibideotan, igurzari sabaiaurreko ahostunarekin bai baina leherkari sabaiaurreko ahostunarekin ere gauzatzen ditu hitzok, hau da, hitz berdina adierazteko

	<p>bi aldaerak darabilzki; adb. <ho[ʒ]ei> eta <ho[j]etan> erakuslearen kasua, eta <zi[ʒ]on> eta <zi[j]on> aditz laguntzailearena.</p> <ul style="list-style-type: none"> · <ni[j]on> eta <n[i]on> bi aldaerak tartekatzen ditu, lehenengoan epentesia leherkariarekin eginez eta bigarrean kontsonante epentetikorik baliatu gabe. · <Zuma[j]ako> izen bereziaz gain, <zuzendar[i]a> eta <tz[i]en> hitz eta aditz laguntzaile hauek identifikatu dira salbuespen gisan; izan ere, testuingurua egokia izanik, hiztunak ez darabil kontsonante epentetikorik. · Epentesiak gertatzen diren testuinguruak: <ul style="list-style-type: none"> ▪ <i> eta <a> bokalen artean; adb. <zortzi[j]an>, <zazpi[j]an>. Txertaketaren bilakabidea gertatu ondoren, zenbaitetan <i> bokala galtzeraino ere iritsi da; adb. <go[j]an>, <behe[j]an>, <saxofo[j]a>, <se[j]an>, <pitze[j]a>, <pastele[j]a>. ▪ <i> eta <o> bokalen artean; adb. <di[j]oe>, <zi[j]on>, <di[j]ouna>, <zi[ʒ]on>, <ni[j]on>. Txertaketaren bilakabidea gertatu ondoren, zenbaitetan <i> bokala galtzeraino ere iritsi da; adb. <gehe[j]o>, <Golma[j]oi>, <naha[j]o>. Horrez gain, <i> eta <u> bokalen arteko kontsonante epentetikoaren adibidea ere topa daiteke, <o>-ren disimilazioaren ondorioz sorturiko <u> bokalarena, hain zuzen; adb. <zi[j]uen>, <edukazi[j]ua>, <koleji[j]uan>; eta kasu honetan ere, bilakabide hori gertatu ondoren, zenbaitetan <i> bokala galtzeraino ere iritsi da; adb. <ensa[j]uak>. ▪ <i> eta <e> bokalen artean, kasu honetan ere bilakabidearen ostean <i> bokala galtzera iritsi delarik; adb. <ho[ʒ]ei>, <bea[j]en>, <ho[j]etan>, <ho[j]ek>.
<p>10. Joseba Garate Elosua; ARRANTZALEA (Mari Kalekoa)</p>	<ul style="list-style-type: none"> · Hiztun honengan erabat gainjartzen den joerarik aurkitzea zail bada ere, gehienbat darabilen edo nolabait orokorra den bokal arteko kontsonante epentetikoa, igurzkarri sabaiaurreko ahoskabea [j] dela dirudi. Halere, leherkari sabaikari ahostunaren erabilera ere ugaria da (<egi[j]a>, <aza-oli[j]ua>), aditzlagun (<di[j]at>), erakusle (<ha[j]ek>) zein aditzondo (<behe[j]an>). · Bikote alternantzia asko darabilzki; hala nola, <aza-oli[j]ua> eta <aza-oli[j]ua>; <behe[j]an> eta <behe[j]an>; <lote[j]a> eta <lotei[ʒ]a>; <ho[j]ek>, <ha[j]ek> eta <ho[j]ek> eta <di[j]at> eta <di[j]ou>, besteak beste. · Bestetik, <Zuma[j]an> izen berezian, eta <ja[j]ak>, <famil[i]an>, <bonbo[j]ak>, <turro[j]ak>, <z[i]en>, <z[i]etan> eta <gehe[j]enian> bezalako hitz mota ezberdin hauek identifikatu dira salbuespen gisan; izan ere, testuingurua egokia izanik, hiztunak ez darabil kontsonante epentetikorik. Hauei goiko puntuan alternantziaren adibideekin aipatutako beste hitz batzuk ere gehitu behar zaizkie. · Aipagarria da <lotei[ʒ]a> hitzean bakarrik sumatu zaiola bokal arteko kontsonante epentetiko igurzkarri sabaiaurreko ahostunaren [ʒ] zantzua.

	<ul style="list-style-type: none"> · Epentesiak gertatzen diren testuinguruak: <ul style="list-style-type: none"> ▪ <i> eta <a> bokalen artean; adb. <di[j]at>, <eskubi[j]a>, <lotei[3]a>, <egi[j]a>, <bi[j]ak>, <parroki[j]anian>, <toki[j]a>. Txertaketaren bilakabidea gertatu ondoren, zenbaitetan <i> bokala galtzeraino ere iritsi da; adb. <behe[j]an>. ▪ <i> eta <o> bokalen artean; adb. <di[j]ou>. Horrez gain, <i> eta <u> bokalen arteko kontsonante epentetikoaren adibidea ere topa daiteke, <o>-ren disimilazioaren ondorioz sorturiko <u> bokalarena, hain zuzen; adb. <aza-oli[j]ua>, <egoi[j]ua>, <oli[j]ua>, <aza-oli[j]ua>. ▪ <i> eta <e> bokalen artean; adb. <baserri[j]etan>. Txertaketaren bilakabidea gertatu ondoren, zenbaitetan <i> bokala galtzeraino ere iritsi da; adb. <ho[j]ek>, <ha[j]ek>.
<p>11.Jesus Gorostola Iribar; ARRANTZALEA (Arritokieta Kalekoa)</p>	<ul style="list-style-type: none"> · Hiztun honengan ez da erraza kontsonante epentetiko baten aldeko nagusitasun joera antzematea; izan ere, pareko darabilzki bai igurzkari sabaiaurreko ahostuna [3] eta baita ahoskabea [j] ere; adb. <txarri[3]a>, <i[j]a>, <gehi[j]ena>, <txiki[3]a>. · <txarri[j]a> eta <txarri[3]a>, zein <berri[j]a> eta <berri[3]a> bezalako hitzetan bi aldaerak tartekatzen dituela ikusten da, batean ahostun eta bestean ahoskabe. · <Zuma[j]an> eta <Ama[j]a> bezalako izen bereziak, <zuma[j]arra> eta <geta[j]arra> bezalako jentilizioak, zein <behe[j]an> moduko aditzondoak identifikatu dira salbuespen gisan; izan ere, testuingurua egokia izanik, hiztunak ez darabil kontsonante epentetikorik. · Epentesiak gertatzen diren testuinguruak: <ul style="list-style-type: none"> ▪ <i> eta <a> bokalen artean; adb. <txarri[j]ak>, <txarri[3]a>, <i[j]a>, <berri[j]an>, <berri[3]a>. ▪ <i> eta <e> bokalen artean; adb. <gehi[j]ena>.

3.2.2 GETARIAKO DATUAK

Zumaiakoekin egin bezala, jarraian, Getariako lekukotasunen datuak aztertuko dira:

5. Taula: Getariako lekukotasunak

<p>1.Julian Sorazu Aginaga; ASKIZU.</p>	<ul style="list-style-type: none"> · Joera orokor eta ia erabatekoa, leherkari sabaikari ahostundun [j] kontsonante epentetikoa erabiltzearena da; adb. <Ori[j]okua>, <behe[j]a>, <gehe[j]ena>. · <ho[j]ek> erakuslea eta <marro[j]a> izena dira identifikatu diren salbuespen bakarrak; izan ere, testuingurua egokia izanik, hiztunak ez darabil kontsonante epentetikorik. · Epentesiak gertatzen diren testuinguruak: <ul style="list-style-type: none"> ▪ <i> eta <a> bokalen artean; adb. <i[j]a>, <haundi[j]a>, <txiki[j]a>, <gorri[j]a>, <junaldi[j]a>, <illargi[j]a>, <berri[j]an>. Txertaketaren
--	---

	<p>bilakabidea gertatu ondoren, zenbaitetan <i> bokala galtzeraino ere iritsi da; adb. <behe[j]a>, <Geta[j]an>, <go[j]an>, <matae[j]a>.</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ <i> eta <o> bokalen artean; adb. <Ori[j]okua>, <ori[j]otarra>, <di[j]oe>, <gutxi[j]o>, <zi[j]on>. Txertaketaren bilakabidea gertatu ondoren, zenbaitetan <i> bokala galtzeraino ere iritsi da; adb. <gehe[j]o>. Horrez gain, <i> eta <u> bokalen arteko kontsonante epentetikoaren adibidea ere topa daiteke, <o>-ren disimilazioaren ondorioz sorturiko <u> bokalarena, hain zuzen; adb. <zi[j]un>. ▪ <i> eta <e> bokalen artean; adb. <haundi[j]ena>. Txertaketaren bilakabidea gertatu ondoren, zenbaitetan <i> bokala galtzeraino ere iritsi da; adb. <gehe[j]ena>, <go[j]en>, <gehe[j]en>.
<p>2.Eugeni Lazkano Ulazia; ASKIZU.</p>	<ul style="list-style-type: none"> · Joera orokor eta ia erabatekoa, leherkari sabaikari ahostundun [j] kontsonante epentetikoa erabiltzearena da; adb. <ana[j]akiñ>, <i[j]a>, <euki[j]agatikan>. · Epentesiak gertatzen diren testuinguruak: <ul style="list-style-type: none"> ▪ <i> eta <a> bokalen artean; adb. <i[j]a>, <euki[j]agatik>, <argi[j]a>, <euri[j]a>, <t'erdia[j]ak>. Txertaketaren bilakabidea gertatu ondoren, zenbaitetan <i> bokala galtzeraino ere iritsi da; adb. <ana[j]akiñ>, <bazka[j]ak>, <gosa[j]ak>, <urda[j]akin>. ▪ <i> eta <o> bokalen artean; adb. <bi[j]ok>, <zi[j]oen>. ▪ <i> eta <e> bokalen artean, kasu honetan bilakabidearen ostean <i> bokala galtzera iritsi delarik; adb. <ho[j]ek>, <ho[j]ekin>.
<p>3.Jose Ezenarro Isasti; EITZAGA.</p>	<ul style="list-style-type: none"> · Joera orokor eta ia erabatekoa, leherkari sabaikari ahostundun [j] kontsonante epentetikoa erabiltzearena da; <gari[j]a>, <di[j]ou>, <ha[j]ek>. · Epentesiak gertatzen diren testuinguruak: <ul style="list-style-type: none"> ▪ <i> eta <a> bokalen artean; adb. <gari[j]a>, <guzi[j]a>, <txiki[j]a>, <harri[j]a>. ▪ <i> eta <o> bokalen artean; adb. <di[j]ou>. ▪ <i> eta <e> bokalen artean, kasu honetan bilakabidearen ostean <i> bokala galtzera iritsi delarik; adb. <ha[j]ek>, <ho[j]ek>.
<p>4.Jose Mari Erkizia Osa; SAN PRUDENTZIO.</p>	<ul style="list-style-type: none"> · Joera orokor eta ia erabatekoa, leherkari sabaikari ahostundun [j] kontsonante epentetikoa erabiltzearena da; adb. <xi-xi[j]a>, <di[j]ou>, <hankazpi[j]an>. · Epentesiak gertatzen diren testuinguruak: <ul style="list-style-type: none"> ▪ <i> eta <a> bokalen artean; adb. <xi-xi[j]a>, <hankazpi[j]a>, <haundi[j]a>, <famili[j]a>. Txertaketaren bilakabidea gertatu ondoren, zenbaitetan <i> bokala galtzeraino ere iritsi da; adb. <saso[j]a>, <behe[j]ai>. ▪ <i> eta <o> bokalen artean; adb. <di[j]ou>, <zi[j]on>. Horrez gain, <i> eta <u> bokalen arteko kontsonante epentetikoaren adibidea ere topa daiteke, <o>-ren disimilazioaren ondorioz sorturiko <u> bokalarena, hain zuzen, kasu honetan bilakabidearen ostean <i> bokala galtzera iritsi delarik; adb. <errosa[j]ua>.

	<ul style="list-style-type: none"> ▪ <i> eta <e> bokalen artean, kasu honetan bilakabidearen ostean <i> bokala galtzera iritsi delarik; adb. <ho[ɟ]ek>, <gehe[ɟ]enez>.
<p>5.Jaxinto Isasti Aizpuru; KALETARRA, ARRANTZALEA.</p>	<ul style="list-style-type: none"> · Joera orokor eta ia erabatekoa, igurzkarri sabaiaurreko ahostundun [ɟ] kontsonante epentetikoaren erabiltzearena da; adb. <ebanistei[ɟ]an>, <gehi[ɟ]o>, <anai[ɟ]en>. · <ha[ɟ]en> genitibo formako izenordaina aurki daiteke leherkari sabaikari ahostunarekin [ɟ], eta hau litzateke aurkitutako salbuespen bakarretakoa. Halere, honekin alternantzia daude, eta gainera kuantitatiboki irabaziz, <hai[ɟ]ek> eta <hoi[ɟ]ek> bezalako formak. · <zak[i]enai> aditz trinkoa da beste salbuespen bat; izan ere, testuingurua egokia izanik, hiztunak ez darabil kontsonante epentetikorik. · Epentesiak gertatzen diren testuinguruak: <ul style="list-style-type: none"> ▪ <i> eta <a> bokalen artean; adb. <ebanistei[ɟ]an>, <txiki[ɟ]ak>. Txertaketaren bilakabidea gertatu ondoren, zenbaitetan <i> bokala galtzeraino ere iritsi da; adb. <arra[ɟ]a>. ▪ <i> eta <o> bokalen artean; adb. <gehi[ɟ]o>. Horrez gain, <i> eta <u> bokalen arteko kontsonante epentetikoaren adibidea ere topa daiteke, <o>-ren disimilazioaren ondorioz sorturiko <u> bokalarena, hain zuzen; adb. <juni[ɟ]uan>, <estudi[ɟ]ua>. ▪ <i> eta <e> bokalen artean; adb. <anai[ɟ]en>, <gehi[ɟ]enak>, <hai[ɟ]ek>, <hai[ɟ]ei>, <hoi[ɟ]ek>.
<p>6.Claudia Iribar Salegi; KALETARRA, ARRANTZALE- KULTURAKOA.</p>	<ul style="list-style-type: none"> · Joera orokor eta ia erabatekoa, igurzkarri sabaiaurreko ahostundun [ɟ] kontsonante epentetikoaren erabiltzearena da; adb. <zi[ɟ]oen>, <basarri[ɟ]en>, <pretentzi[ɟ]oik>. · <tz[i]en> aditz laguntzailea eta <behe[ɟ]an> aditzondoa dira aurkitu diren salbuespen bakarrak; izan ere, testuingurua egokia izanik, hiztunak ez darabil kontsonante epentetikorik. · Epentesiak gertatzen diren testuinguruak: <ul style="list-style-type: none"> ▪ <i> eta <a> bokalen artean; adb. <basarri[ɟ]ak>, <jantoki[ɟ]akin>, <haundi[ɟ]a>, <haragi[ɟ]a>, <garesti[ɟ]a>, <herri[ɟ]a>, <txiki[ɟ]a>. Txertaketaren bilakabidea gertatu ondoren, zenbaitetan <i> bokala galtzeraino ere iritsi da; adb. <arra[ɟ]akin>, <ana[ɟ]ak>. ▪ <i> eta <o> bokalen artean; adb. <zi[ɟ]oen>, <pretentzi[ɟ]oik>, <gehi[ɟ]o>, <Ori[ɟ]on>. Txertaketaren bilakabidea gertatu ondoren, zenbaitetan <i> bokala galtzeraino ere iritsi da; adb. <tza[ɟ]o>. ▪ <i> eta <e> bokalen artean; adb. <basarri[ɟ]en>. Txertaketaren bilakabidea gertatu ondoren, zenbaitetan <i> bokala galtzeraino ere iritsi da; adb. <ho[ɟ]ek>.

<p>7.Maritxu Ezenarro Idiakez; KALE- BASERRIKOA (Aldamar Kaleko Higionekua)</p>	<ul style="list-style-type: none"> · Joera orokor eta ia erabatekoa, igurzkari sabaiaurreko ahostundun [ʒ] kontsonante epentetikoa erabiltzearena da; adb. <txiki[ʒ]ak>, <guzti[ʒ]a>, <ha[ʒ]ek>. · <Pela[j]onian> izen berezia, eta baita, <estimaz[i]ua> eta <ja[j]ero> izenak dira aurkitutako salbuespen bakarrak; izan ere, testuingurua egokia izanik, hiztunak ez darabil kontsonante epentetikorik. · Beste salbuespen bat <i[j]a> litzateke, kontsonante epentetiko igurzkari sabaiaurreko ahoskabedun [j] kasu bakarra baita. · <udaberri[j]a> eta <udaberri[ʒ]a> bi aldaerak tartekatzen ditu, batean leherkari eta bestean igurzkari ahostun. Halere, leherkari sabaikari ahostunarekin [j] topatutako adibide bakarra da hori, eta gainera, <udaberri[ʒ]a> aldaera, behin baino gehiagotan darabil. · Epentesiak gertatzen diren testuinguruak: <ul style="list-style-type: none"> ▪ <i> eta <a> bokalen artean; adb. <txiki[ʒ]ak>, <guzti[ʒ]a>, <Itali[ʒ]an>, <udaberri[ʒ]an>, <ikaragarri[ʒ]a>, <udaberri[j]a>, <haundi[ʒ]a>, <tripaki[ʒ]ak>, <i[j]a>. ▪ <i> eta <o> bokalen artean; adb. <gehi[ʒ]o>. Horrez gain, <i> eta <u> bokalen arteko kontsonante epentetikoaren adibidea ere topa daiteke, <o>-ren disimilazioaren ondorioz sorturiko <u> bokalarena, hain zuzen; adb. <nobi[ʒ]uak>. ▪ <i> eta <e> bokalen artean, kasu honetan bilakabidearen ostean <i> bokala galtzera iritsi delarik; adb. <ha[ʒ]ek>, <ho[ʒ]ek>.
<p>8.Juanito Eizagirre Ulazia; KALE- BASERRIKOA (Herrerieta Kaleko Santinekoa)</p>	<ul style="list-style-type: none"> · Hiztun honengan ez da erraza kontsonante epentetiko baten aldeko nagusitasun joera antzematea; izan ere, pareko darabilzki bai igurzkari sabaiaurreko ahostuna [ʒ] eta baita leherkari sabaikari ahostuna [j] ere; adb. <tzi[j]oen>, <toki[ʒ]a>, <hoi[ʒ]etarikan>, <gehe[j]o>. · <beh[j]ek> eta <Kanpa[j]a> bezalako izenak, <bea[j]enak> jabego-genitibo formako izenordaina, zein <d[i]ou>, <zeok[i]on> <z[i]oena> aditz trinko hauek dira aurkitutako salbuespenak; izan ere, testuingurua egokia izanik, hiztunak ez darabil kontsonante epentetikorik. · <kale-basarri[j]ak> eta <kale-basarri[ʒ]ak>, <ho[j]ek> eta <ho[ʒ]ek> bezalako aldaerak ere tartekatzen ditu, batean leherkari eta bestean igurzkari ahostun. · Epentesiak gertatzen diren testuinguruak: <ul style="list-style-type: none"> ▪ <i> eta <a> bokalen artean; adb. <toki[ʒ]a>, <kale-basarri[j]ak>, <di[ʒ]at>, <kale-basarri[ʒ]ak>, <euzki[j]a>, <txiki[j]ak>, <mahasti[j]a>, <toki[ʒ]a>, <famili[j]a>, <egi[ʒ]a>, <erdi[ʒ]ak>. Txertaketaren bilakabidea gertatu ondoren, zenbaitetan <i> bokala galtzeraino ere iritsi da; adb. <zela[j]a>, <Tala[j]a>, <behe[j]an>, <suta[ʒ]a>. ▪ <i> eta <o> bokalen artean; adb. <tzi[j]oen>. Txertaketaren bilakabidea gertatu ondoren, zenbaitetan <i> bokala galtzeraino ere iritsi da; adb. <gehe[j]o>, <zitza[j]on>, <za[j]o>, <ja[j]o>. Horrez gain, <i> eta <u>

	<p>bokalen arteko kontsonante epentetikoaren adibidea ere topa daiteke, <o>-ren disimilazioaren ondorioz sorturiko <u> bokalarena, hain zuzen, kasu honetan bilakabidearen ostean <i> bokala galtzera iritsi delarik; adb. <kontra[j]ua>.</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ <i> eta <e> bokalen artean; adb. <hoi[ʒ]etatikan>. Txertaketaren bilakabidea gertatu ondoren, zenbaitetan <i> bokala galtzeraino ere iritsi da; adb. <ho[j]ek>, <ho[ʒ]ek>, <ha[j]ei>, <ha[j]ek>.
--	--

3.3 EMAITZAK

Kostaldeko bi herriotako biztanleen grabazioak aintzat hartuta, bokal arteko kontsonante epentetiko frikari ezberdinen erabileraren inguruan bildutako datuetatik ateratako emaitzak adieraziko dira atal honetan. Hitzun bakoitzaren grabaketei eskainitako grabaketa-denbora eta lan honetarako interesgarri diren testuinguruak ere bat ez direnez, hitzun bakoitzaren jardunean ageri diren adibideen arabera atera dira emaitzak, hau da, erabilitako hizketa libreko corpusean izandako agerraldien arabeko emaitzak eskainiko dira.

Hasteko, auzoguneetatik ekingo zaio datuak erreparatzeari, lehenik Zumaiako auzoei eta ostera Getariakoei; ondotik, Zumaiako herriguneko hitzunei erreparatuko zaie, bai herritar eta baita arrantzaleei ere; eta amaitzeko, Getariako herriguneko berriemaileekin bukatuko da, bai kaletar zein kale-baserrietakoekin.

Alde batetik, Zumaiako auzotar guztien joera orokor eta nagusia leherkari sabaikari ahostundun [j] kontsonante epentetikoa erabiltzearena dela ikusi da. Honen salbuespen bakar Elorriaga auzoko Klaudio Etxabe Udabe *Pikote*-rena litzateke, zeinak joera orokor bezala igurzkari sabaiaurreko ahostuna [ʒ] erabiltzea duen (nahiz eta nagusitasun osoarekin ez izan, leherkariak ere erabiltzen baititu). Bestetik, <Zuma[i]a> eta <Zuma[j]a>, bigarreanean leherkari eta lehenengoan ez, aldaera biak tartekatzearena bai Brigida Ibarbia Ugarte oikiarrarengan zein Miren Azpeitia Egaña Larrondoarrarengan antzeman da. Joxe Etxabe Udabe *Bitarte*-k hitz bera erabiltzen ez badu ere, bariazio hori <tz[i]en> eta <tzi[j]en> aditz laguntzaileekin darabilela ikusi da. Kasu honetan ere, *Pikote* da ezberdindu beharrekoa, berak <txiki[j]a> zein <txiki[ʒ]a> aldaerak tartekatzen dituelako. Hori horrela, *Pikote*-k batean leherkari eta bestean igurzkaria darabiltza, eta ez aurretik aipatutako auzotarren moduan, zeinek batean leherkari eta bestean epentesirik gabe egiten duten. Horrez gain, zenbait salbuespeneko hitz zerrendatuko dira, auzotar hauek testuinguru egokia izanik ere batera kontsonante epentetikorik tartekatu gabe egin dituztenak: <behe[j]an>, <fronto[j]a>, <ja[j]ero>, <balo[j]a>, <ata[j]an>, <Azpeitt[i]an>.

<Ama[j]a>, <famil[i]a>. Hitz zerrenda honetatik, <behe[j]an> eta <ja[j]ero> dira hiztun batek baino gehiagok batere epentesirik gabe egin dituztenak; zehazki, <behe[j]an> bi hiztunek errepikatua eta <ja[j]ero> hiruk. Azkenik, epentesiak gertatzen diren testuinguruak anitzak dira hiztun hauengan; izan ere, bai <i> eta <a> bokalen artekoa, bai <i> eta <o> bokalen artekoa eta baita <i> eta <e> bokalen artean gertatutako epentesiak topatu dira hiztun guztien jardunetan.

Bestetik, Getariako auzotarren datuei erreparatuz, hiztun hauek leherkari sabaikari ahostundun [j] kontsonante epentetikoak tartekatzeko duten joera nagusitasun handikoa dela ikusi da, ia salbuespenik gabekoa. Zehazki, aurkitu diren salbuespen bakarrak <ha[j]ek> eta <marro[j]a> hitzak izan dira, bi-biak ere Julian Sorazu Aginaga askizuarri entzunak, zeinetan testuingurua egokia izanik ere, kontsonante epentetikorik tartekatu ez duen. Auzotar hauengan, Zumaiako auzotarren kasuan bezala, epentesiak gertatzen diren testuinguruak anitzak dira; izan ere, bai <i> eta <a> bokalen artekoa, bai <i> eta <o> bokalen artekoa eta baita <i> eta <e> bokalen artean gertatutako epentesiak topatu dira azterturiko elkarrizketetan.

Lehen auzotarren multzokatze hori amaituta, herriguneetara igaroko da. Zumaiarekin hasiz, batetik Erribera Kaleko kaletarrak, eta bestetik, Mari Kaleko zein Arritokieta Kaleko arrantzaleen arteko bereizketa egin da. Lehen taldekoengan, hau da, kaletarren, leherkari sabaikari ahostundun [j] kontsonante epentetikoak tartekatzeko joera nagusitzen da. Badira honen salbuespen batzuk, batez ere Maria Antonia Goikoetxea Elustondoren elkarrizketetan topatuak, non hiztunak igurzkari sabaiaurreko ahostuna [3] erabiltzen duen. Halere, topaturiko adibideotan, alternantzian darabiltza elkarrizketa berean [j]-rekin, hau da, hitz berdina bi modutara gauzatzen du; <ho[3]ei> eta <ho[j]etan>, adibidez. Beste bikote alternantzia bat ere ikusi da hiztun honengan, <ni[j]on> eta <n[i]on> aditz laguntzaile bikotearena, bata leherkariarekin egina eta bestea epentesirik gabe. Kaletar zumaiar hauen jardunean, testuingurua aldeko izanik, bakoitzari hiruna salbuespeneko hitz aurkitu zaizkio; hala nola, <eskurs[i]ua>, <argazk[i]a> eta <omenald[i]an> lehenari, eta bigarrenari <Zuma[j]ako>, <zuzendar[i]a> eta <tz[i]en>. Bigarren taldera igaroz, hautatutako hiztun arrantzaleengan, berriz, ezin daiteke hain erraz izendatu joera orokorrik; izan ere, Joseba Garate Elosuarengan igurzkari sabaiaurreko ahoskabea [j] nagusitzen dela dirudien arren (nahiz eta leherkari sabaikari ahostunaren [j] erabilera ere ugaria izan), Jesus Gorostola Iribarrek pareko darabiltza bai igurzkari sabaiaurreko ahostun [3] eta baita ahoskabedun [j] kontsonante epentetikoak

(Garaterengan, berriz, [ʒ] kasu bakar batean baino ez zaio ikusi; <lotei[ʒ]a>). Beraz, argi ikusten da biak arrantzale izanik edo izandakoak izanik ere, ez dituztela hots epentetikook berdin erabiltzen. Horrez gain, biek ala biek bikote alternantzia dezente darabiltzate: alde batetik, Garatek bai igurzkari ahoskabe eta leherkari ahostundun bikote alternantziak (<a-za-oli[j]ua> eta <a-za-oli[ʒ]ua>, adibidez), baina baita kontsonante epentetiko eta batere gabeko bikote alternantziak ere (<behe[j]an> eta <behe[ʒ]an>, adibidez); bestetik, Gorostolari igurzkari ahostun eta ahoskabe bikote alternantziak topatu zaizkio (<txarri[ʒ]a> eta <txarri[j]a>, adibidez). Amaitzeko, testuinguruak hala baimendu arren batere kontsonante epentetikorik ez darabilten adibideak asko dira bi hiztun hauengan: <bonbo[j]ak>, <turro[j]ak>, <gehe[j]enian>, <ja[j]ak>, <famil[i]an>, <Ama[j]a>, <behe[j]an>, <z[i]etan> <z[i]en> eta <Zuma[j]an>; lehenengo hirurak kenduta, gainontzeko salbuespen-hitz guztiak orain arte azterturiko auzotar eta Zumaiako kaletarrengan ere topatu dira. Amaitzeko, epentesiak gertatzen diren testuinguruak <i> eta <a> bokalen artekoa, <i> eta <o> bokalen artekoa eta <i> eta <e> bokalen artekoa dira Garaterengan; aldiz, Gorostolaren jardunean <i> eta <o> bokalen artean gertatu den epentesiaren adibiderik ez da topatu.

Azken multzoaren datu bilketen emaitzak azalduko dira atal honekin amaitzeko, Getariako herriguneko arrantzale edota arrantzale-kultura horretan bizi diren herritar eta kale-baserrietan bizi diren herritarren multzoarenak, hain zuzen. Datuei erreparatuz, guztien joera orokor eta nabarmena igurzkari sabaiaurreko ahostundun [ʒ] kontsonante epentetiko tartekatzearena da, nahiz eta Herrerietan Kaleko *Santinekoa* kale-baserriko Juanito Eizagirre Ulazia salbuespentzat jo daitekeen. Izan ere, hiztun honek nahiko modu bertsuan darabilzki bai igurzkaria eta baita leherkaria ere, hitz berarentzat bi aldaerak tartekatzera ere iristen delarik; adibidez, <kale-basarri[ʒ]ak> eta <kale-basarri[j]ak>, <ho[ʒ]ek> eta <ho[j]ek>. Hiztun honen moduan, Aldamar Kaleko *Higionekua* kale-baserriko Maritxu Ezenarro Idiakezek ere badarabiltza hitz beraren leherkari eta igurzkaridun kontsonante epentetiko aldaerak; adibidez, <udaberri[ʒ]a> eta <udaberri[j]a>. Halere, azken hiztun honen leherkaridun adibide bakar hori topatu da, eta gainera, igurzkaridun aldaera behin baino gehiagotan lekukotu zaio. Jaxinto Isasti arrantzale edo arrantzale ohiari ere topatu zaio leherkaridun adibide bat, <ha[j]en> genitibo formako izenordaina, hain zuzen. Baina Ezenaroren kasuan bezala, Isastirenak ere salbuespen puntual baten itxura du, behin bakarrik aurkitu baitzaio, eta gainera, <hai[ʒ]ek> eta <hoi[ʒ]ek> bezalako formekin dago alternantzian, kuantitatiboki garaile

direnak gainera. Igurzkari sabaiaurreko ahoskabeari [j] dagokionean, berriz, Getarian topatu den kasu bakarra Ezenarrori eginiko elkarrizketan identifikaturikoa izan da, <i[j]a>. Salbuespenekin amaitzeko, <zak[i]enai>, <Pela[j]onian>, <estimaz[i]ua>, <beh[j]ek>, <Kanpa[j]a>, <bea[j]enak>, <d[i]ou>, <zeok[i]on>, <z[i]oena>, <ja[j]ero>, <tz[i]en> eta <behe[j]an> hitzak lekukotu zaizkie Getariako arrantzale eta kale-baserritar hauei, testuingurua egokia izanik ere kontsonante epentetikorik erantsi ez dizkieten hitzak (azken hiru hauek beste hiztun batzuegandik ere lehendik antzemanak). Hiztun hauekin amaitzeko, eta baita emaitzen atala ixteko ere, epentesiak gertatzen diren testuinguruak azalduko dira: hiztun hauei eginiko hautatutako elkarrizketetan, bai <i> eta <a> bokalen artekoa, bai <i> eta <o> bokalen artekoa eta baita <i> eta <e> bokalen artean gertatutako epentesiak topatu dira; testuinguru anitzetan gertatzen dira, beraz.

4 ONDORIOAK

Behin azken atalera helduta, lan honetatik ateratako ondorioak azalduko dira. Horretarako, hasiera batean botatako hipotesiari helduko zaio berriro, behin datu bilketatik ateratako emaitzekin, hasierako uste horiek zuzenak diren ala ez egiaztatu ahal izango delako. Honen ostean, lan honek lezarzkeen ekarpenak eta falta dakizkiokeen osagarriak zerrendatu edota aipatuz amaituko da.

Hasiera bateko hipotesiaren ildotik, beraz, baieztatu daiteke datu bilketa eta emaitzei so, igurzkari sabaiaurreko ahostunaren [ʒ] erabilera itsaso eta arrantza-munduarekin dagoela estuki loturik. Kontsonante epentetiko honen erabilera ez da batere sumatzen ez herri bateko ez besteko auzo-inguru eta herrigunetik at kokatutako baserri giroan, Elorriaga auzoko *Pikote*-ren kasuan izan ezik. Salbuespen honek, hasieran luzatutako hipotesi hori indartu besterik ez du egiten, ordea; izan ere, baserria itsas ertzean bertan egonik, harraldeko arrantza ondo baino hobeto ezagutzen du hiztun honek, eta beraz, Elorriaga auzoko baserrian jaio eta bizi izan arren, itsasoarekiko lotura medio, *Pikote*-k [ʒ] kontsonante epentetikoaren erabilera egiten du.

Horrez gain, lanean zehar behin baino gehiagotan aipatu denez, Getariak itsasoarekin duen, eta batez ere, izan duen lotura oso estua da, eta hori argi islatzen da aztertu diren herriguneko herritarrengan. Getariako kale-baserrietan bizi direnek zein herrigunean bertan bizi direnek, guztiek dute itsasoarekiko atxikimendua eta, haien hizkera da horren erakusgarri. Hiztun hauen guztien jardunean antzeman da igurzkari sabaiaurreko ahostuna [ʒ] egiteko joera nabarmen eta nagusia; *Santinekoa*-ko Juanito Eizagirre Ulazia litzateke salbuespen, [ʒ]-rekin batera leherkari sabaikari ahostuna [j] ere tartekatzen baitu. Zumaiako kasua, aldiz, guztiz aurkakoa da, ezin baita hiztun bat bera ere [ʒ]-ren erabileraren nagusitasunarekin ezaugarritu. Jesus Gorostola Iribar litzateke hots honen erabilera handiena egiten duena, baina aldaera ahoskabearekin [j] tartekatzen du. Gainontzean zumaiarren artean ez da beste aztarna nabarmenik, Maria Antonia Goikoetxea Elustondok aipatzen dituen [ʒ]-ren pare bat adibide salbu.

Hau ikusita, Getariako herriko auzokide eta herritarren arteko bereizketa argiagoa da, non kontsonante epentetikoaren erabilera ezberdinek itsasoarekiko duten atxikimendu maila ere iradoki dezaketen. Zumaian aldiz, muga hori lausoagoa da, herritarrek berek ere ez baitute arrantzale-kultura Getariakoek bezain barneratua, eta itxura denez, izan daiteke [ʒ] kontsonante epentetikoaren urritasunaren erakusgarri.

Igurzkari sabaiaurrekoaren [ʒ] aldaera ahoskabeari dagokionean, Zumaian bi hiztunengan ikusi da, eta ez Getariakoen kasuan bezala hitz solte bat edo besteko salbuespen gisa. Nagusitasun osoz ez bada ere, nahiko orokortuta eta beste kontsonante epentetikoren batekin tartekatuta ageri da Zumaiaiko pare bat hiztunen jardunean. Egia da Hualde eta Gamindek (1998) Zumaian, *-i + -a* testuinguruetarako [ʃ] aldaera hau izendatzen dutela, Zuazok (2008) ere Zumaiaiko nagusien artean hau berau topatu duela eta ahotsak.eus webgunean ere Zumaiaiko hizkerak Itziarkoa gertuko duela diotela (non [ʃ] -ren erabilera nagusitzen den erabat), baina herritarren lekukotza eta usteetatik zein autorea bera ere zumaiarra izateak suposatzen duen jakintza, familiartasun eta gertutasunetik, hasiera batean ez zen halakorik topatzerik espero.

Lan honek alor dialektologikoari behatzea helburu ez badu ere, ekarpen dialektologikoa izan dezake; izan ere, lanean zehar ikusi da (Hualde eta Gaminde (1998) eta Zuazo (2008), batez ere), kontsonante epentetiko hauek direla eta eremu eta multzokatze ezberdinak bereizi daitezkeela.

Interesgarri eta baliagarri izan daitekeen Zumaia eta Getariako hizkeren egoera zahar baten emaitza eskaintzen du ikerlan honek; aztertu diren hiztunen jaiotza datei erreparatzea besterik ez dago (1920-30 inguruan jaiotakoak dira gehienak).

Hemen aurkezten diren datuak garrantzitsuak izan daitezke, 2. atalean aipatu moduan, orain arte eginiko ikerketak *-i + -a* testuinguru morfologikora mugatu direlako (absolutibo singularraren eransketarekin gertatzen denera), eta ikerlan hau haratago doa egokiera fonikoari ere erreparatzen baitio.

Egungo egoeraren erretrato osoago bat egin ahal izateko, oraingo gazteei galdeketa bat egiteko beharra sumatzen da. Batez ere, hemen ageri diren desberdintasunak mantentzen diren ikusteko, lan honen osagarri egoki litzateke herritar gazteagoei zuzenduriko galdeketa bat.

5 BIBLIOGRAFIA

Agirrebeña, A.; Sarasua, A. eta Zabaleta, M. (2017). *Getaiko euskera*. Getariako Udala eta Badihardugu Euskara Elkarte.

Agirrebeña, A.; Maiz, B.; Sarasua, A. eta Zabaleta, M. *Zumaiako euskara* [argitaratu gabea].

Azkue, R. M. (1919). *Fonética vasca: conferencias / de Resurrección María de Azkue*. Bilbo: Bilbaína de artes Gráficas Juan J. Rochelt.

Hualde, J. I. eta Gaminde, I. (1998). Vowel interaction in Basque: A nearly exhaustive catalogue. In Antonsen, E. H. (arg.), *Studies in the linguistic sciences*, vol. 28, 1, (41.-78. or.). Department of Linguistics, University of Illinois.

Hualde, J. I. (2003). Phonology. In Hualde, J. I. eta Ortiz de Urbina, J. (arg.), *A grammar of Basque* (15.-112. or.). Mouton de Gruyter, Berlin.

Michelena, L. ([1961], 1985). *Fonética Histórica Vasca*. Anejos del Anuario del Seminario de Filología Vasca “Julio Urquijo”. Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.

Zuazo, K. (2006). *Deba ibarreko euskara – dialektologia eta tokiko batua*. Badihardugu euskara elkarte.

Zuazo, K. (2008). *Euskalkiak. Euskararen dialektoak*. Elkar.

5.1 WEBGRAFIA

[Getariako auzoen mapa], Getariako Udala, <https://www.getaria.eus/eu/kartografia-eta-mapak/>, [2023/05/10].

Euskal Herriko hizkerak eta ahozko ondarea, <https://ahotsak.eus/herriak/>, [2023/02/23].

Instituto Nacional de Estadística, <https://www.ine.es/index.htm>, [2023/05/06].

[Zumaiako auzoen mapa], Zumaiako Udala, turismoa, <https://zumaia.eus/es/turismo>, [2023/05/10].

6 ERANSKINA²¹

6.1 ZUMAIA

6.1.1 OIKIA

BRIGIDA IBARBIA UGARTE

- Zumaiarrek eta oikiarrek doinu desberdina hizkeran
 - **Ni zumaia**rra-zumaia**rra** ez naix, e! Zumaia “Zumaixa” ta zea horretakua ez naix ni. Ni naix neure... Guk ikasi genduna, beste doiñu batekin.
 - Oikiyakua?
 - **Oikiy**akuena, bai. **Oikiy**a.
 - Diferentia da orduan?
 - **Bai, bai, bai, bai, bai. Bai, Getaira ta danea, baita... Oikiy**a beheia**an** dao, eta gora **iy**o, Miako Gaiña, Alto de Meagasa... Senarra, bai. Alto de Meagasa **iy**o ta ziharo ezberdiña da. Aizarnazabal ere bai.
- Oikiako herri-eskola; Angelita Zinkunegi irakaslea
 - **Danak. Ta geo bertan gendun herriko eskola, Oikiy**an bertan, lau urtetik hamalau urtea bitartian. Gendun. Maestra batekin danok konpontzen giñan, lautik hamalaurakuak. Zatiy**ak** bat, bestia, bestia...
 - Ta zuk [...]?
 - **Bai, uañ baño geheyo**, gaur dan eunian baño geheyo giñan. Zein pixkat aurreo zijuanak, harek laguntzen ziyon txikiy**au**ei txandan, erakusten...
 - Erakusten, e?
 - **Bata bestiai. Ta sei urtekuakiñ lau urtekuak ere, ba, sei urtekuakin batea, ta zortzikuak ere... Taldia giñan. Taldia giñan, oso, ... Gu maestrakin, nire denpoa guztiy**an maestra bat izan tzan, ta beñe-beñe-beñe ez gendun euki ezeren aitzakikan, e? Ez, ez, ez...
 - Ta zein tzan maestra?
 - **Maestra, hemengua zan, Zumaikua zan, Angelita Zinkunegi, Zumaiko hola...**
 - Maestra [...]
 - **Ona, soltera... Gureztat on-ona. Pentsauzazu, ezkondu giñanian ere, zea, boda ta danea gonbiratu ta torri in tzan,**
 - Bai?
 - **Etorri in tzan gañea. Esan nahi nuke, ordurako utzita o zeatuta zeon baña etorri in tzan. Bai, bai. Oso jatorra. Harentzat etzuan izan ez hau malla hontakua da ta ez.... Guk, atian**

²¹Aukeratutako hiztunaren esanak letra lodiz idatzirik daude eta testuinguru ezberdinetan erabiltzen dituzten bokalarteko kontsonante epentetiko ezberdinak azpimarraturik daude, koloreka: horiz <y> hotsa, hau da, leherkari sabaiaurreko ahostundun [j] kontsonante epentetikoa; berdez <dx>, igurzkari sabaiaurreko ahostundun [ʒ] kontsonante epentetikoa; eta azkenik, urdinez <x>, igurzkari sabaiaurreko ahoskabeduna [ʃ]. Kontsonante epentetikoa txertatzeko egokia den bokalarteko testuinguru bat izanik hiztunak halakorik ahoskatu ez badu, bi bokal hauek letra lodi gorritz eta azpimarraturik adierazi dira.

sartu eta barruan dan-dana erderaz. Gaixki o ondo erderaz. Kargua hartzen ziun gaixki esaten bagindun.

- Baña gerra, gerra ostekua [...]
- Bai, gerra ostekua... Franko han tzeon banderituakiñ. Eta, dana erderaz, ezta [...]. Atetikan kanpoa, dana euskeraz. Baita maestra beak ere. Atian sartzen giñanetikan, erdera gendun nausi. Hantxen ikasi gendun! Eta geo hamalau urte, ta geo gure gurasuak, nik eztakat ezer esateikan gurasuagatikan, hamalau urte intziunian eta gure aitta zanak eta, ba tartian galdu giñuzen eskolak, [...], “beste urte bat geheyo intzazue ba, hor izangozue ta!” Zumaiko kolejiyoa hiru ahizpak, urtian-urtian, kurso bana, txandan in gendun. Ta bazian gurekin batea Oikiyatik etorritakuak ere beste kurso bat ittea.
- Pixkat geheyo, gurasuak nahi izango zuten, ez?
- Bai, gurasuak... Pixkat, zea pixkat, irikitasun pixkat, o lagunartia o.. Ez ez gendulako baña... Geheyo nahi zuen beayek... Ta gure aitta zana re, garai hartan, pentsau zazu e... ehun urte ingo zittun aurten ondo izan bazan. Eta bea re hamalau urte eo zeatu ezkeo, Zumayako eskolan ibilitakua e, beai re gurasuak, izatea ba beste urte bat geheyo. Geuk ere umiai lagundu in diyoeu ahal duen arte. Hori gurasuendikan ikusi deu, e.
- Bai, ta orduan gañea ez zan normala, baserritan ta askotan hamar-hamabi urtekin baserriyan [...]
- Ta geo garai hartan bazian gau eskolak esaten zitzatenak, illuntzian, negu-partian ta, ba seiretatik zortzireta, maestra beak ematen zittuen, partikular, pixka-pixkat soldautza zijuaztenai ta... Bai, kontu hoyek ondik, gaur daon eunin beste mou bateko bizimoua, danakiñ, danakin baño ez...
- Eta gau eskolak eta, baño geheyo mutikoentzat eta izango zian, ez?
- Mutillak eta baita nexkak ere, e. Nexkak ere bazian, atzin gaña ibiltzen zianak, ez giñan danok berdiñak ordun ere, e, ez giñan danok berdiñak.

MANUEL UGARTE LOPETEGI

- Harri koskorrekin ezik beste edozerekin pilotan
 - Eta bestela, plaza ta, Oikiyako, Oikiko plaza ta... asko aldatu da?
 - Oikiko plaza, frontoia, frontoia politta huan Oikiyan. Uain botata zio. Uain geo berriya in tziyen tapautakua.
 - Eta nun tzeon lehen?
 - Lehen Oikiyan... Oikiyan izan al haix hi...
 - Pasata, bai.
 - Zean plaza, plaza bea, taberna, Txortena taberna horren aurrekaldian huan zea, frontoia, frontoia irekiya huan. Ta hua itxitzeko ta, ta zean ta zitxion, baiña ez zitxion, gaiñea, itsusi geldittu [...] zean, Txortena daon zea hori, itxia, bista dana kentzen zitxion. Ta etzekit uain dala zenbat urte iña izango zan berriya. Ta ordun in ziye zaharra bota. Hamaika pelota iña giñun! Goizian mezeta ta jun, ta jata geo pelotan.
 - Eun guztin.
 - Eun guztiyan ez. Goizian erten ta geo mezetatik erten ta... Txorteno, zea... Behin pixkat heldu giñanian, ta han txakoliñ pixkat ta ean ta zeara geo, pelota. Beatziyak, t’erdiyak o

goizian, goizo izaten huan meza. Neguan zortzietan ta udaan zazpi t'erdittan o etzakit ze izaten zan, zazpiretan o, zazpi t'erditan o. Ta orduan j*a*iero jun behar izaten huan mezeta. Ta aurrena zea jun, e, geo handik ertendakuan pelotan. Ta geo izaten huan earra! Eskuak eta dana zea zitxian, tontotzen zitxian, ta geo jun hai zea, belarrak atea zeara, han, e, beh*y*ai belarra ekartzeko zeara. Eskuak haundi-haundi inda. Hortxe ibiltzen giñan. Baiña...

- Orduan takuak eta oain bezalakoik ez zan.
- Takuak? Takuak? Nik ez... Lehenguan batek esaten zitxan Get*y*an, han nitxion beira, ta gaztiak ai hittun, kadetiak o, zean-ta ta. Zeak esaten zitxian, batek, "A! Oaingo gazte habek zeak eskuan, takuak eta jarrita ta, gu ibiltzen giñun bate gabe! Majiña bat aldiz bate gabe ibiltzen giñuan ba gu!"
- Bate gabe. Eta pelotak eta [...] eta...
- Takuak eta pelotak eta... Harri*y*ak bezelakuak igual!
- Halamouzkuak.
- Halamouzkuak! Aplikatzen zan moukuak ordun. Zeoze baldin bazan borobilla, harri*y*a ez ezikan, zeatzeko moukua.
- Bote txiki bat egiten bazun...
- Bai, bai, bai, bai. Zeoze itten bazuan han onduan, ertentzen bazun, han ibiltzen giñan. Ta bai, bai, han tzebillen harrek esaten... Oaingo zea habek, berriz, takuakin ta gaztetatikan prepaauta zatoztik zearako, hortako, ohittuta, ohittu're in beharko [...]. Gu jokatzan gendun zea jarri, ene!, esparatrapu zahar bat. Ta zea, harrek zea ingo zun, esparatrapu zea bat jarrita! Beste ha*y*ek, bestia azpiko zea ha*y*ek! Ez...
- [...] zan hamen, e, zuen gazte denboran, gaztetan eo?
